

PATXI URIBARREN LETURIAGA EUSKALTZAIN

1.- AURKEZPENA

Patxi Uribarren Leturiaga adiskidea euskaltzaina da, euskaltzain osoa eta fraidea, fraide karmeldarra.

Bizarrez apaintzen du betaurrekoen osteko aurpegia, orain zuririk, artean beltz-beltz, arterago guri-guri. Esan liteke erdi tamainako neurria gordetzen duela, Aita Larramendiren biza-



rraren eta Aita Juan Bizente Zengotitaren bitartekoa. Berbalduna, etorri handikoa eta barrekaria, barre zantzorako joerakoa.

1942ko urriaren 31n jaio zen Aramaioko Etxaguenen. *Etxean jaio nintzen. Bikia izan nintzenez, eta amak odol asko galdu zuenez, hil zorian oso larri egonik, atzetik etorri ziren biak Gasteizen jaio ziren.*

Gorputz sendoa, luzea, Aitajaun/aitata biengandik ei dator-kio: *Aramaioko aitajauna eta Arrazolako aitaita gorpuzkera onekoak ei ziran, eta hortik datorkit bainbatean neure izaera. Amaren familiako neskak bere, antza, gorpuzkera dotorekoak ziran. Hori zala eta edo, erabili eban Zubiaurrek amaren antz-antzeko abizta koadro bat pintatzeko.*

Amagandik jasoak ditu, ostera, hizkera, errezoak, kantak... *Gurean bere, beste euskal familia gebienetan jazo izan dan moduan, ama izan neban errezo, kanta eta horrelakoen lehen irakaslea. Arreba nagusienak bere, gure ardura izaten eban eta asko lagundu euskun txikitan. Euskarari dagokionez, ama Aramaiokoa egiten abalegintzen zan. Hori eta auzoko euskal giroa zala eta, bertako euskara nagusitu zan oso-osoan seme-alabongan. Guk, geure artean, 'bika' aditz-jokoa erabiltzen genduan eguneroko hartu-emonetan.*

Familia ederra osatzen zuten Uribarren Leturiagatarrek: *Garrai baretan baserri giroan obikoa izaten zan bidetik asko izan ginan etxean; hamabi neba-arreba jaio ginan eta, bederatzik jarraitzen dogu bizirik. Nik ez dot hildakorik ezagutu, bata nire anaia bikia izan zan arren. Orduan errezez hiltzen ziran umetan, batez bere kukurruku-eztulak jota. Izugarria izaten ei zan amentzat umea besoetan arnasa hartu ezinda hiltzen ikustea!*

Etxekoekin harreman estua, bai Etxaguenen bizi direnekin, baita inguruan, Bilbon, dauzkanekin eta urrunean direnekin ere.

Erromesaren janzkera, botak, anoraka eta jertseak, fraka lar-guak, panazkoak ere sarri.



Patxi Uribarren, bera proposatu zuten lau euskaltzainak ondoan dituela.

Buruan txapela inoiz, txanoak ere bai *Korrika* edo halako motiboren bat iragartzen dutenak, Pilare Baraiazarrak kontatzen digunez. Hala behar-eta jaka edo amerikanaren bat janzten badu ere, modak ez lezake Patxi Uribarren mendean hartu.

Urteak dira Patxi eta biok, gutxienik unibertsitatean irakasle ginenetik, elkar ezagutzen dugula. Oroitzapen biziak pizten dizkit *Karmel* aldizkariko artikuluetariko baten -1982-lekoan- idatzirik dakarren neure poema atalak: “*Gazteak oro dira urre*”-eman ere bizitzako orduetarik asko gazteriaren giroetan eman ditu-. Ikusi bagintu irakurleak, han Bilboko Magisteritzako Eskolan, Patxi Uribarren isiltzen ez zenari laugarren solairuko bulegoraino eskailera eskailera laguntzen, “ene badatxoa!” gutxienez, esango zukeen. Ni goizalderik loak hartu ezinik egonda -Atotz alaba itzartzen zen desorduetan egunero-egunero-eta- eta Patxi bedeinkatuzko loa eginda Orixol mendira doan artzainaren abiadan. Jesus! Zelako kirol egin beharrak!

Lagunen lagun da: *Juanjo Bazterra gure adiskide sutsu eta jatorra istripuz hila* dakar gogora 1990eko maiatzean. Patxi adiskide da hiztegitintzako *Adorez* taldeko kideekin azken 30 urteotan, baita Santutxuko Oinarrizko Kristau Komunitatekoekin ere, Joseba Bazterrak azaltzen digunaren arabera.

Erlijioan ditu erroak *Karmel* 2002-3an dioskunez: *Otoitz horiek, bestalde, ez ziren inguratzen gaituen mundu aldakor eta globalizatutik ibes egiteko aitzakia, konpromisorako dei ozena baizik*. Baita Imanol Berriatuaren berbak direla-eta ere zera dioenean ere: *Oso-osoan neure egiten ditut Imanolen berbak: "Gauza bik alienatu naute beti: kristau fedeak eta euskarak*.

Euskaltzaindira karmeldarren tradizio goi-gailurretakoari jarraituz dator: Gabirel Jauregi, Santi Onaindia, Lino Akesolo, Luis Baraiazarra, Patxi Urizarren.


Batetik, alokairua jasotze orduan azkeneko erreibindikazioa ere isilduko ez duena, bestetik, eskuzabal erabatekoa, dela Korrikarako, dela Nikaraguarako lehengusuari igortzeko, dela Malawirako, karmeldarren misiorako. Eta beti ezkutuko ekintza erara.

Euskaldun-euskalduna. Aitak honetara berba egin ei zion Luis Baraiazarrak Patxiren lagunik handienak agertu zigunez: *Abaztu barik daukat zelan esan eustan Patxik, "Horra Nafarroara-eta, Riberara-eta zoaz-eta, han erdaraz egingo deusue irakasleak-eta danak. Behintzat, errezuak-eta zuk, bakarrik egiten dozuzanean, euskaraz egin, bere aitak esan eutsola"*. Harrezkero, "Urizarren'dar Patxi" sinatzen hasi zenetik gora, zenbat behar –soldatapeko langile izatetik kanpo- zenbat ikerlan, irakasle lanetan, testugintzan, ikerlari zereginetan, antolatzaile, idazle –ezen literaturagile ere baita: *"Txepetx panpox txikitxoak..."*; *"Arranoaren hegaldi zabal eta indartsuak; sai beltzen zeruan zebarkako joan-etorriak, miruaren egonaldi geldi eta miragarriak"*.

2.- ATARIKOA

Irakurle zuhurrak, erraz antzeman lezake zein nekeza izan daitekeen Patxi Uribarrenen biografia luzea idazteko, lumara berba aproposak ekartzea. Beraz, ondo ohartzen naiz, ahaleginak ahalegin, labur gera naitekeela eta geratu ere hala egingo naizela, zeren hemendik 30 urtera guk orain baieztatua urri geratuko baita, ikusten dugularik, aramaioarra sasoiko dela iritsi euskaltzain oso izatera.

Hala ere, abiatu egin gara, ohartuta, kontua ez datzala den-dena kontatzean, ezpada adierazgarriena era trinkoan argitaratzean. Dena den, beti ere, ez da kontua gertaera guztiak zerrendatzea ze, esate baterako, numeroak banan bana zenbatzea kontu infinitua da, eta gizakiok gurago izaten dugu euren arteko indardunak, esanguratsuenak edo eufonikoenak hautatu. Horretara, “mila esker” adierazgarria dugu, ez, aldiz, “bederatzehun esker”.



Hiztegieta bat sinatzen.

Guk erabilitako metodologia izan da, lehenik berarengana jotzea, zeren ura iturrian bertan baita gardenen, ezen errekan behera jario denean, metal-uraren nahiz kare-harrien gustua hartu ohi du; hurrengo, geuk lagun eta lankide moduan bizi eta landuriko arloak hona garraiatzea; gero, berak 35 urtean *Karmel* aldizkarian idatziriko artikulatuak-eta banan bana leitzea; azkenik, haren adiskideengana hurreratzea eta, lur sail orok dituela bere mugak jakinik, amaieran Patxi Uribarren Leturiagaren curriculum osoa gehitzea.

Patxik berak, era honetara dago inoren biografia Bilboko Liburu Azokan “Urrezko luma” jasotzeko ospakizunean: *Benetan lan pozgarria dot, bainbat urtetan ikaskide—bi kurtso aurreragokoa— eta bizitzan zehar adiskide mina izan dodan Luisen bizitzako zertzelada nagusien eta lanen berri zuei eskaintzea. Karmel 2006-3.*

3.- UMEZAROA NATURAN

Txikitan baserri giroan bizi izan ginenok abiatzen da 1983ko Karmel aldizkarian.

Guk giro hori Patxi Uribarrenen bizitza osoko sinbologian nahiz astialdietako mendi zaletasunean topatu dugunez, behar-beharrezko sentitzen dugu unibertso hartako bizi giroa islatzea.

Patxik, Gabirel Jauregiren bizitza kontatzerakoan dakarren narrazioa hona aldaturik —mutatis mutandis— lortua dugu Etxauguen auzoaren deskribapena, geuk eta geure udako ikastaroe-tako lau bat zienta ikasleek ederto baten ezagutua: *Auzo hau gorengo auzoa dugu. Anbotoko mendikateako muturretako baitzen barrenean aurkitzen da. Gaur egun pinu ugari ageri bada ere, lehenago solo eta landa garbiak, larre zabalak eta pagadi eta gaztainadi ederrak zeuden inguruetan. Haitzari “Etxangatxa” deitzen diote eta bertan jaioten den ur gardenezko errekarari, “Etxango erreka”. Lehenago bi urtegi zituen erro-tarako eginak auzo erdian “goikoerreka” deitzen dioten le-*

kuan. Antzina beherago egon zen errota, “errotondo” toponimoak aditzera ematen duen bezala. Otxandioko fabriketarako argi-indarra ateratzeko erabiltzen zen urtegi bat ere badago auzoko etxeak baino zertxobait beherago.

Bertatik iragaten zen Arabatik Bizkaira zihoan “Mandabideta” bide nagusia ere.

Etxaguen Aramaioko herriburu den Ibarrik hiru kilometro eta erdira dago. Patxik bertako eliz ondoko plazan jokatu izan du eta hainbat aldiz begiratu eliza ondoko Latetatik Aramaioko baranerantz, Arantzazu eta Aizkorriko mendietaruntz. Uribarrenek ederto baten ezagutu izan du baserriko bizimodua, lurrak lantzea, abereak jagotea, baserrirako lanabesak: hortz bikoa, artarea, laiak... Han holgatu izan du “asto-astoka”, “txutxurrutxuka” edo “txirringolan”. Hantxe igotzen izan du –eta igoko du, bizarrak bizar- etxe ondoko arte itzelera eta edango goikoerrekan ur freskoa eta entzun erro-tako “tangarrila.

Izadiko giro horrek bizimodu guztian izango du oihartzuna, gorago esan bezala: Ingurune honetatik hurrean jaioa izanik, gogo biziz jarraitu izan dot Urkiolako Parke Naturalaren inguruan azken urteotan plazaratu izan diran barriak.

Egia esan, Urkiolak balako zirrara berezia sortu izan deust txikitatik, behar bada, urtero bertara egiten genduan errogatiba izaten zalako guretzat herriko muga estuetatik kanporantz urteteko ate bakarra. Benetan oso egun zoragarria izaten zan, eta atseginez betetzen zituen gure barruak.

Bestalde, Urkiolako Parke Naturalaren barruan aurkitzen dira hainbat mendi, baso eta lurralde etxe-etxeokak ditut, eurretan zehar hainbat joan-etorri egina nazalako, edota, aurrez aurre, urrutira, behin baino gehiagotan ikusi izan ditudalako.

Halakoen artean, aparteko aitaketa merezi dabe, bertako eliza-santutegiaz gainera, inguruan dagoen pagadiak, eta al-

derik alde zebarkatzen dauan mendizerrak". Eta Uribarreni gazte oroitzapen bizi-bizien artean banan bana datozkio inguruetako toponimoak: Pol-pol, Atxin, Ipiztikarriaga... *Karmel* 1997-4.

3.1.- Jaiotetxea, eskola eta eliza

Patxiren lehen deitura eta jaiotetxearen izena bat datoz, Uribarren dira, euskal kulturen ospe handiko etxe eta deitura.

Gure etxe zaharra -geroago euskarako ikastaroak eta emoteko erabili genduana- bi bizitzakoa zan. Gure Aitajaunaren aitak, alde bat alabari -Gabirel Jauregi Uribarren idazlearen amari- emon eutson, eta bestea etxeko oinordeko zan nire aitajaunari. Barrutik ate bat egoan batetik bestera joateko. Gabiren Jauregi eta ni teilatupe berekoak gara, bada!

Herrietan egin izan ditugun grabaketetan, solaskideek zehatz-mehatz gogoratzen dituzte eskola sasoiko gertaerak: Patxik ere argi eta garbi ditu gogoan txiki denborako urte haiek.

Nik lau bat urte nituen gure artera lehen maistra etorri zanean. Oraindino eskola-etxea guztiz egin barik egoanez, gure baserri ondoko Etxebarria baserriko gela batean batzen ginen. Gero, eskola barrian jarraitu neban Zornotzara joan arte. Eskola barruan dana erdaraz izaten genduen, eta handik kanpo jolasean, elizan nabiz etxean euskara hutsean. Lehenengo maistra Bilboko familia abertzale batekoa zanez, ez genduan arazorik izan euskaraz egiteko. Berak bere hainbat ikasi eban auzoan egin zituan sei urteetan zehar. Geroago izan genduzan euskararen aurkako pare bat maistra amorratu. Bata Burgosko militar baten alaba.

Gero, Jaunartzea, berezkoa zanez, auzoko elizan egin neban. Auzoko umeak etxera joaten ginan bazkaltzera. Gantzatik etortzen zirenak, eskolan bertan edo ondoko bazterren batean jaten eben aldean ekarritakoa.

4.- IKASKETAK

Irakurleari atal honetako paragrafoak ulergarriago gerta da-
kizkion, urterik urterako ibilbidea nondik nora izaten zen era-
kustea, erara datorrela uste dut:

- 11 urtegaz Zornotzako El Carmen kolegiara sartzen ziren, bertan urte bitan ikasteko.
- Hurrengo, Nafarroako Alesbesera eramaten zituzten, bertan 3 kurtso egiteko.
- 15/16 egitean nobiziatuan sartzen ziren, abitua hartzen zuten Zornotzan, Larrean, bertan urte betez jardunik.
- 16/17 urterekin profesa egin, eta Markinara joaten ziren urte baterako. Hori profesadunen kolegioa zen.



*Aramaioko Lore-jokoan mendeurrenean Patxi Uribarreni
eta beste herritar batzuei omenaldia egin zietenekoa.*

- Handik Gasteizera hiru urtean filosofia ikasketak burutzeko.
- Ondorik, Begoñara, Karmelora, 4 urtez teologia ikasteko; Patxiren kasuan, bi urte Karmelon bertan eta azken bi urteak Deustuko Teologiako fakultatean.

Patxi Uribarrenek, batxilergo txikiko lehen bi mailak Zornotzan egin zituen, 1954-1956an eta Nafarroako Alesbesen azken hiru mailak, 1957-1959.

Kurtsootan, Alfabetatzen 1/2 egin zituen, Zornotzan hiru orduz ikasita, eta Alesbesen astean ordu bi, gainerako ikasleak marrazki-lanak edota eskulanak ikasten zituzten bitartean.

Gaurko irakaskuntzan aritu izan garenok, harriduraz begira geniezaieke orduko ikasketa plangintzei: *Zornotzan latina zen ikasgairik nagusia. Bigarren urtean grekoa ikasten hasten ginen. Erdara bere arduraz irakasten jakun. Ordutegia oso betea, goizeko 7,30etan hasi eta gaueko 9:00etara. Dana dala, bai goizean, bai bazkalostean, bai arratsalde erdian, bai afalostean ordubete inguruko atsedenaldiak izaten genduzan jolasetarako.*

Astean bi ordu erabiltzen genduzan euskaraz alfabetatze-ko. Bizkaiera euskalkikoak talde batean, eta gipuzkera-nafarrera euskalkietakoak beste talde batean batzen ginduezan. Bizkaiera euskalkikoak testuliburutzat Arantzazun ateratako euskal aditza, eta Hipolito Larrakoetxea gure frailearen Grim anaien ipunak (Aramaiokoaren antzeko Arratiako hika erabiliz euskaratuta) liburua erabiltzen genduzan. Etxerako gutunak eta idazten hasi ginen. Nafarroako Alesbesera joan ginean ere euskarako eskolak izatea lortu genduen.

Batxilergo nagusia, gero, Markinan, 1961-1962ean. Aldi honetan burutu zuen Patxik Alfabetatzen 3; gainera, eskola orduen barruan. Oraingo irakurleok ezin ahaztuko dugu frankismoan era bat galarazita, ezabatuta zegoela euskararen irakaskuntza modu ofizialean. Karmeldarren artean, oster, ikasle euskaldunek lau ordu zeuzkaten euskaraz, gainerakoek grekoa

ikasten zuten bitartean. Berak hemen idatzi zituen lehen bi idazkiak, bata, *Karmel* aldizkarirako eta, bestea, ikaskideen aurrean irakurtzeko.

Filosofia eta teologia -7 urtez- Gasteizko eta Bilboko karmeldarren etxeetan ikasi ohi ziren. Patxik, aldiz, -artean aipatu bezala- azken urte biak Deustuko Teologia Fakultatean, bukeran Teologian lizentziatura lortuz, 1969an.

Luis Baraiazarrek, Patxiren lagunak mikrofonora kontatzen digunez, *Fraidetzan, euskara arloan, Patxik zorte on-ona izan zuen. Bera ni baino urte bi geroagokoa zen kolegioan. Guk debekatuta-eta eduki genuenean Villafranca de Navarran, Alesbesen –ni 3.ean eta bera 1. mailan ibilirik, Patxik ez eban debekurik ezagutu.*

Gu hara sartu ginenean, erdararik ez genkiala-eta, erdaraz ez genduala ganoraz egiten-eta euskaraz egitea galarazo egin euskuen. Orduan jende asko egoten ginan kolegioetan-eta, eta Azkoitiarrak paseoan jo eta su euskaraz, eta Mungialdekoak be bai, Mungia, Larrauri, Gamizkoak, baita Txorierrikoak be mordoa ginan, beti euskaraz egiten genduan. Gainera, oporretan be aurreko probintziala eduki genduanean, hilebiko oporrrak izaten genduzan, eta kolegioan atzeratuten zana euskaraz, udako denboran, atoa etortzen ginan lehengora.

Gero, beste probintzial bat, arabar bat ipini eben eta honek 20 eguneko oporrrak bakarrik itxi euskuzan.

Patxi Alesebesera sartu zanean, Aita Hipolito Larrakoetxea egin eben probintzial eta harek euskarazko klaseak ipini zituan astean behin, eta guri euskaraz egitea galarazo euskun zuzendaria bera – Arratzukoa zan-eta, euskalduna- ipini eutsien Patxiri irakasle. Patxik zorte ona eduki eban, ez eban ezagutu etenik gure moduan.

Gero nobiziadura etorri zanean be –batzuetan etxeko ofizio batzuk-eta ipintzen eutsezan- gaixozain ipini eben. Aita Martin Uriarte egoan orduan nabiko zahar –Karmengo Argia al-

dizkarikoa, Karmel honen aurrekoarena, lehenengo zuzendaria izan zana, 1931n-. Horren gaixozain Patxi zan eta horrek erdaraz inoiz be ez eban egiten. Hor be Patxik zorte ona.

Ez dogu ahaztu behar –jarraitzen du Luisek- adin horretan euskara erabili ezik galdu egiten dela; ez gero 22 urteko zarenan.

Gainera, Alesbesen, Patxi gaztea izan arren, noizik behinean alkartzen ginenean, Patxik beti euskaraz egiten eustan niri. Jakina, osabak-eta eduki zituan horrek, Gabirel-eta euskaltzaleak, euskal idazleak-eta izan zirenak.

Alfabetatzea 4, Begoñako garaian erdietsi zuen eskola orduetatik kanpo. Bestalde, berton direla jarri zuten abian Gogoz aldizkaria euskal taldeko ikasleek.

Halaber, sasoi horretan sari bi ere eskuratu zituen Patxi Uribarrenek: Olerki saria Iruñeko lore-jokoetan, 1966an, eta prosa saria Zornotzako lore-jokoetan *Karmeldarrak euskal literaturan* lanarekin, 1967an.

Ikasketetan, linguistika erromanikoan lizentziatura lortu zuen Deustuko Unibertsitatean, 1969tik 1974rako urteetan.

Patxi bera honela mintzo zaigu: 1968ko *Gabonetan*, apaiz egin eta ikasturte horretan teologiako lizentziatura amaitu ostean, nire euskaraganako zaletasuna ezagutuz, Aita Lino Akesolok filologia egitea komeni zitzaidala esan zidan. Beraz, *Euskal Probintziako gure ikasketa-arduradunak* zer egin nahi nuen itaundu zidanean argi agertu nion gogo. Ez zuen inolako eragozpenik izan horretarako, aurretik baitzekien ni nintzela Gogoz karmeldar gaztetxoan aldizkariaren arduraduna eta beraz bide horretatik ibiltzeko gogo. nuela.

Gogoz hori helburu jakinekin sortu zuten: *Teologian euskarako alfabetatze lanetan* hasi ginen ikasle taldetxo bat. Ikastetxean erdarazko aldizkari bat ateratzen zanez, guk euskaraz egitea pentsatu, eta horrela egin genduan. Aldizkari hori, gainera, Zornotza eta Alesbeseko ikasleak euskara mundura ekar-



Uribarren Leturiaga familiako neba-arrebak eta koinatu-koinatak 2000. urtean Albinako "Marixeka" basilizaren aurrean.

tzeko amu modura erabiltzen genduan. Bagenduan talde bat Austriara ikasten joandakoa, eta euren artean bere euskara zaindu egien lagungarri izango zala uste izan genduan. Talde horretakoa dogu azken hogeita bost urteotan Karmel aldizkariaren zuzendaria izan dogun Julen Urkiza.

Goizetan izaten ziren eskolak eta horrek ez zien etxeko lanei oztoporik sortzen. Lehen urtea ofizialki egin nuen eta hurrengo hirurak libretik, ikasgai batzuetara bakarrik joaten nintzela. Azken urtea, oster, errebalida eta prestatu behar zirenez, berriro ofizialki. Ikasketa-garai hori oso berezia izan genuen, Burgosko epaiaren inguruko hainbat ekintza gertatu baitziren tartean. Gure komentuko eliza parrokia egin zutenean (1970) parrokiako zuzeneko ardura hartu zuen taldeko kide izendatu ninduten, eta horrek eskola guztietara joan ezina

ekarri zidan, filologiako ikasketak eta parrokiako lanak batera egin beharra bainuen.

Teologiako lizentziatura 1969an lortu zuen; tesi txikia eus-kara hutsean eginez, eta linguistika arloko lizentziaturarako te-si txikia 1974an Aramaioko toponimiari buruz.

Alfabetatzen 5 mailako diploma Eusebio Erkiagaren eskue-tatik jaso zuen *Euskerazaleak* taldeak antolaturiko alfabetatze ikastaroetan.

Horrez gainera, Euskaltzaindiko “D” eta “B” titulazioak 1972ko martxoaren 9an bereganatu zituen.

5.- AITAREN BASERRIA DEFENDATUKO DUT

Arestiren “etxea” “baserria” da Patxiren iruditerian. Urian bi-zi den baserritarra da. Bere burua baserritar agertuko du. Siste-matikoki jarraitzen dio baserriko eboluzioari, kooperatibak di-rela, esnearen salneurria dela... Gero, Diputazioan itzultzen zi-tuen baserriaren gaineko testuak bereganaturik, etxetik zekarren ezagutza apaindu egin du. Ez da zuhaitzik ezagun ez duenik, ezta belarrik antzemango ez duenik ere. *Anaiaren etxaldera edo badoa, eskuak urratuta edo belar batzen bizka-rra erreta itzuliko zaizu Karmelora nekazaritzan jardutearen ondorioz, bide batez, hango apaizak egun libreak har ditzan ordezkapenak eginik* -argituko digu Pilare Baraiazarrak.

Uribarrenek berak honetara deskribatzen du: *Gure baserria antzinakoa dugu eta auzoaren beheengo baserriari dagokio-nez Uribarren du izena. Beheko aldeak hainbat hondatu zi-tuen berrogeita hamabostean izandako uriolak, ura sartu bai-tzen kortetan eta behealdeko geletan. Bi etxebizitzako baserria da eta nire aitajaunaren garaietan bitan banatua izan zen, barrutik etxebizitza batetik bestera pasatzeko atea duela. Alde bat nire aitaren lehengusina batena zen. Nire gurasoek baserri berria egiterakoan, zaharra baserriko lanetarako edo geratu zen. Lehengusinarena, oster, hutsik zegoen bertan bizi izan*

ziren azken maizterrak bizitzera Arrasatera aldatu zirenetik. Alde horretan jaioak ditugu Gabirel Jauregi Fisia eta Kimia liburuak idatzi zituen eta bere anaia Gotzon Jauregi.

Patxik berak hurrengo pasartean esango ez badu ere, bada-kigu baserria barnetegi moduan atontzeko obrak egiten bera eta lehengusua aritu zirela euren peoi-eskuak erabiliz. *Santutxuko udako ikastaro trinkoak abian jarri zirenean, Etxaguengo abatetxean ikastaroa emateko aukera izan genuen hirur-tetan. Denbora horretan gure baserri zaharra eta lehengusina-rena atondu genituen lan horretarako. Gelak eta prestatzeaz gainera, komunak eta dutxak jarri genituen eta sukalde zabal eta on bat ere bai. Aukera bat erabiliz ohatze on batzuk ere erosi genituen eta horrela 24-36 pertsonentzako lekua gertatu genuen. Lekurik gehien logelak okupatzen zuten.*

Kronika irakurri ahala konturatuko gara, euskalgintzan ne-kez topa daitekeela ospe handiagoko baserririk: *Bilboko Ira-kasle Eskolan irakasle nintzela bertan antolatzen nituen uda-ko ikastaro trinkoak. Euskarako "D" titulua lortzeko izaten zi-ren. Horrek ikastaroan gai desberdinak irakastera hainbat irakasle eramatea eskatzen zuen, euskal literatura, euskararen*



Patxi, ikasle talde batekin Aramaioko Etxaguengo eliza ondoko Latetako begiratokian

historia, morfosintaxia, gramatika eta abar irakatsi beharra izaten zen eta.

Beti abalegintzen nintzen ikastaro horietara ikasleek gainera Santutxuko gaueskoletako langileak edota Aramaioko seme-alabak eramaten, ikasle butsak zirenentzat presio bide izaten zirelako. Oporretatik egunak hartuta joaten zirenak gehiago baloratzzen zuten denbora. Inguruko herrietan jaiak eta izaten zirenean ardura handiago izaten zuten eskoletan butsik ez izateko. "D" titulurako ikastaroetan ezinbestekoa izaten zen eskolan parte hartzea, literatura eta historiari buruzko gaietan izan ezik. Horrela eskolako erritmoa ez etetea lortzen zen.

Halako antolaketek norainoko buruminak sortzen dituzten ohararazteko aski da hurrengo: *Nire kalkuluetan laurehun bat ikasle prestatu ziren euskarako "D" titulua lortzeko eta gaur egun hor dabilta zenbait zentrotan euskara irakasten nahiz euskaraz irakasten. Batzuk unibertsitatean irakasle izatera heldu dira. Esaterako, Irakasle Eskolan, bigarren urtean nahiko lizentziatu tituludun ez genuela eta zenbait irakasle hartu genituen euskarako titulua ateratzeko urtebeteko epea emanaz. Nik neuk eman nien 10 egunetako ikastaro trinkoa Aste Santuko oporretan. Gaur egun halako bat edo beste unibertsitateko katedradun da.*

Ekonomilari sena ere erakusten du Patxik ikastaroon kudeaketan: *Aramaioko gazteak euskara alorrean prestatzea ere oso interesgarria ikusten nuen, hori bertan euskalduntzea eta alfabetatzea abian jartzeko irakasleak gertatzeaz gainera, euskaltzaleasuna bultzatzeko bide ere bazelako. Batzuk, bertan euskarako titulua lortzeko prestatu ostean, hainbat urtetan irakasle izan genituen udako ikastaro trinkoetan, horrela, ikasten ari ziren karrera-garaietan kostuetarako diru-laguntza lortuz. Ikastaro hauetan ez genuen irakasle faltarik izaten inon baino hobeto ordaintzen genielako ICE-ko laguntzari esker. Ikasleek ere beste leku batzutan baino askoz gutxiago ordaintzen zuten (Aramaiokoak ezer ez) diru-laguntza izaten genuelako.*

Geroago Juan Luis, zuek Txorierriko Institutukoek eta erabili zenuten behin edo beste baserri hori, baina, laguntza emateko halako lekuetarako HABEk baldintza oso zorrotzak jartzerakoan (irakasle-gela, eskolak emateko zenbait gela, eta abar.) behin betiko itxi ziren bertako ateak.

Aramaioko beste auzo batzuetan ere udako ikastaroak abian jartzeko asmoak izan genituen, bala nola, Uribarri eta Azkoako abatetxeetan. Asmo horiek alde batera utzi ziren konponketa handiegia behar zutelako eta ez zelako eskola horien etorkizuna ziurtatuta ikusten. Uribarriko abatetxea handia zen, baina, kaletik (Ibarratik) oso hurbil izateak ere kezka sortzen zigun, han nabiko erdara egiten zelako. Ikastaro horien ardura zuzena nik neuk izan nuen eta Aldundian lanean hasi nintzenean ez nuen ekimenari eutsiko zion inor aurkitu. Oso esperientzia interesgarria eta onuragarria izan zela uste dut.

6.- JAIOTERRIA IKERGAI: ARAMAIO ETA ARABA.

Patxi Uribarren Leturiagak –Arabako euskaltzainak- bizitzaren garapenean, hurretik urrunera haztean, ez du alde batera lagatzen jatorria, sorlekua. Ondorioz, lehentxoago idatzi bezala, linguistikako lizentziadun izateko, tesi txikirako ikergai Aramaioko toponimia hartzen du eta Arabako euskaltzain izendatu artean ere, ez du ahanzi Zazpigarren Alabari atxikirik behar duela jokatu.

Arabako Aramaioko euskaratik Bizkaiko Arrazolakora ala Gipuzkoako Oñatikora dagoen alde handiagoa itaunduz, erantzuten du: Zure itaun horri, inpresioak alde batera utzirik, erantzun zuzena emateko hainbat azterketa egin beharko genituzke. Nik neuk Arrazolakoa hurragokoa izan dut, ama bertakoa nuen eta. Oñatin ere asko maite izan nuen izeko bat izan genuen eta harreman oso estuak. Nire izekori “aramaiorra” deitzen zioten. Beraz, bazegoen nolabaiteko alderik. Nire amari ere, deitzen zioten noizean behin “bizkaitarra”, batez ere Ibarra ingurukoek, baina, Etxaguengo euskara egiten aba-

legintzen zen. Nire ustetan, doinuan eta ahoskatzean dira alderik handienak. Hizkuntzaren hainbat arlo aztertu beharko genituzke beren beregi antzak eta aldeak zehazteko.

Hori horrela, argi dago Aramaion bizkaiera egin izan dugula, gure irteera geografiko nagusia “probintziarantz” izan den arren. Debarro osoan bizkaiera egin izan denez guk ere hala egiten jarraitu izan dugu. Aramaiok Bizkaiaarekin izan duen lotura, bestalde, antzinakoa da, bertan beti indarrean izan baitira Bizkaiko foruak. Bertako egitura administratiboaren oinarri ere “elizateak” izan dira. Niri neuri, ez dit inolako biguinik ematen euskarari dagokionez neure burua bizkaitar aitortzeak.

Ildo beretik, tesi txikia edo tesina bera ere jaioterriari atxikirik idazten du: Garai hartan Deustuko linguistika-karreraren tesi txikia ere eskatzen zuten karrera amaitzeko eta nik Aramaioko toponimia aukeratu nuen. Horrela, aparteko aukera izan nuen Aramaioko auzo guztiak bisitatzeko eta bertako jendearekin zuzeneko harremanak izateko. Kontuan izan behar da Aramaioko auzoak sakabanatuta daudela eta ni hamaika urte nituela ikasketak egitera joan nintzanean ez zegoela kaminorik auzo gebienetara. Hori zela eta, hainbatean ez nituen ezagutu ere egiten beste auzo batzuetako pertsonak. Oso aberasgarria izan zen auzorik auzo eginiko lan hori. Euskaldun jator ugari ezagutzeko abagune paregabea eman zidan.

Aramaiori loturik darraielat ageri da, Lore Jokoak bertan ospatzean ere: Ez da harritzekoa, bada, orain dala ehun urte, herria orain baino oraindino euskaldunagoa zanean, Arabako udal honek “Lore Jokoak” ospatzeko egin eutsoen deiari baiezkoa emotea. Orain, mendeurrena gogora ekarriz, barriro egin gura izan dira, eta horrek oihartzun handia izan dau Euskal Herri osoan zehar.

Gorago esan dodan legez, benetako poza sortu deust bihotzaren sakonean, irailean zehar Aramaion egin diren “Lore Jokoak” zirala eta, komunikabedeetan gure herria hain sarri aiatua eta goratua ikusteak”. Karmel 1994-4.

Karmel aldizkarian ere, Patxik artikulua asko dakar Arabaren gainean. Esate baterako, 1975-lean “Aramaion euskera noiz arte?”; 1975-2an: “Aramaio Araba ote da?”; 1977-lean: *Aramaioko berria burua jasotzen: Bestalde, ez dezagun abaztu Euskal bi probintziren muga dagoela. Hori dela eta, indar zapaltzaileek bertan jarria izan dute Goardia Zibilen postu nagusietariko bat.*

UEMA udalerri euskaldunen mankomunitatea izeneko artikuluan diosku: *Aramaioko udalak UEMAn sartzeko erabakia hartu zuela, batetik, eta bestetik, UEMAk urteroko bilera bertan Aramaion egin duela, lelo honekin:* “Euskararen lurraldea zabaltzen. *Karmel* 1996-2.

Biografieta ere, indar nagusia Arabarrak deskribatzeko ematen ditu indarrik gehienak: Odon de Apraiz euskal idazlearen omenaldian: *Zer esanik ez dago Jose Migel Barandiaranek, gure agurettoak, hitzaldi goxoa eskaini zigula.* *Karmel* 1977-1.

“*Gabirel Jauregi Uribarren idazlearen mendeurrena*” deritzanean haxe idazten digu *Karmel* 1995-3an: *Bere jaiotzako mendeurrena zela-ta, Euskaltzaindia, Aramaioko Udala eta Karmengo Ordena elkarturik, ageriko omenaldi eder bat eskaini zioten bere jaioterrian, Aramaion.* Ale horretako argazkian Patxi abade gazte, bizar beltz ageri da, begiak Arrietako Aita Patxiren irudira bildurik.

Pedro Pujana Agirregabiria, Bilboko Liburu azokaren “Urrezko luma” izeneko idazlanean: “*Aldizkari honetan, idazlan hau eskainiz, bihotzez txalotu gura dogu Pedro Pujana, euskararen alde eta gure herriaren alde bizitza luzena zehar egindako lan oparoa eskertuz.* *Karmel* 2000-4.

Azkenik, orain artekoan Arabako azken biografia: *Sabin Salaberri Urzelai aramaioarra* izenburuaz idatzi izan du.

7.- EUSKAL TALAIAKO BEGIRALE

Euskararen azken 40 urteetako bilakaera ikertu gura duenak, ezinbestean jo beharko du Patxi Uribarrenen artikulugin-

tzara, bera izan delako hizkuntzaren mugimenduari euskal talaiaitik so aritu izan dena.

7.1.- Kazetari kronikaria

Patxi Uribarren idazleak kronikari zereginari ekin dio urteetan, batez ere, *Karmel* aldizkariako orrietan, ehun artikulua, kronika, txosten baino gehiago idatzirik. Gehiegikeriarik barik adieraz daiteke, kazetari lanbidea ere bere izan duela.

Karmel 1980-3an idazten duen kronikak honelaxe du izenburua: “*Zenbait euskal irakasle Israelen*”. Hori “*Euskara euskaldunon hizkuntza*” goiburupean idatziriko hamahiru artikuluetarik bat da.

Bidaia horretan, Patxi bera ere tarteko izanik, barru-barrutik kontatzen dio irakurleari zein interesgarri gertatu zitzaion txangoa, bai hizkuntzaren aldetik, baita erlijioarenetik ere.

1970eko hamarkada euskalduntzearen eta alfabetatzearen loraldia gertatu zen. Pizkunde horretan, Imanol Berriatuaren gidaritza –Xabier Kintana-eta lagun direla- ulertzen laguntzen du artikulua, argumentazioan euskarako irakasleen eta Israelen arteko harremanak Euskaltzaindiaren babespean sendotuz. Hor dakar gogora Patxik *Hitz Egin* metodoa ere.

Dioskunez, 50 euskal munduko joan ziren uztailaren 1etik 10era.

Patxik artikulua jakingarri honetan aztertzen ditu ULPANak ere –hebraiera irakasteko zentroak, batez ere, Akiva Ulpana, Israelgo Ulpanik ospetsuenetarikoa.

Amaitzen du, baieztatuz, euskara Euskal Herriko berbeta nazionala dela eta *Israelen lortu duten bidetik jokatu beharko genukeela, denok euskararen alde lanean elkarturik, gure herri osoa euskalduntzeko*.

Karmel 1982-2, 3, 4an Colegio Aleman San Bonifacio ikastetxera doa landa lana egitera. Daraman asmoa da, beraien eskar-

mentua jaso eta aztertu ondoren, euskararen irakaskuntzarako ezer ikastekorik baldin bada, hartu egitea. Era horretara, hogeii orrialdeko kronika zehatz bezain aktualitatekoa erdiesten du.

Karmel 1987-2an, ordea, ikastolek antolaturiko symposiuma eta *Korrika* hartzen ditu kronika gaitzat. Honetan parte hartzen duen jendetza goraipatuz, Balendin Enbeitaren mezua darama-la urte horretan azaltzen digu.

Kazetari zereginetan aurrera eginez, “*Euskara Bilbon*” txosten luzea idazten du, 27 orrikoa. Bertan, Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta Donostia arakatzen ditu. Eta horretarako, datu estatistikoteknikoz baliatzen da. *Karmel* 1991-2an.

Jokabide bera darabil “*Euskararen unibertsoari buruzko jardunaldietan*”. Haren ustez: *Euskal Herrian azken urteotan izan den kultur gertakizunik garrantzitsuenetarikoa*. *Karmel* 1997-1.

Karmel 2003-1ean, *Egunkaria* aurrera. (Bai euskarari esperatuak askatu). Irakurle guztiok dakizuenenez, aurtengo otsaila benetan “otsoen” bila gertatu zaigu *Euskal Herrian*. Egin ere triskantzat galanta egin dute euskararen eta Irizpide Askatasunaren aurka Espainiako estatuko botere basatiek. Artalde osoa aztoratzeraino.

7.2.- Egile eta eragile

Patxi Uribarren euskalkidea luzaroan ezagutu dugunok, badakigu atsotitzaren esanetara jardun izan duena: *Ezin denean abal dena egiten eta abal denean dena*, dela unibertsitateko euskal adarra antolatzen, dela *Adorez* hiztegiko taldea sortzen, dela Santutxuko Oinarrizko Kristau Komunitatean, nahiz Udaiko Ikastaroetarako Uribarren baserriko gelak atontzen edo *Karmel* aldizkariako laguntzaileen taldean; Patxi egile bezainbat eragile agertzen da.

Aurrelari zereginetan izan ohi diren kezkak eta koskak go-goan harturik, idazten du *Karmel* 1981-3an: *Euskaldun baten pozak eta penak*. *Nire aurreko zenbait idazlan irakurri izan*



dituzuenok, sarri leporatu izan didazue optimistegia naizela edo eta lainoetan ametsetan nabilela. Eta, behar bada, arrazoi handia izango duzue.

Patxi Uribarren baikorregia den edo ezkorregia argitzea garrantzizko izan arren, askoz garrantzitsuagoa da burutu dituen ekintzei erreparatzea eta erreparatu ere *garai heroikoetan* –hala kalifikatzen du Joseba Basterrak, euskara ikasten han barnetegi eta baserrietan kaletarrak ziren arren oso baldintza gogorretan zebiltzanean; lurrean jesarrita-eta.

Ordenako betebeharren gainean, esan dezagun, 1964-65ean; Karmelon mezako iruzkin/otoitz/oharrak euskaraz prestatzeko ardura eman ziotela. Geroago, apaiz egin ondoren, euskal mezaren ardura nagusia izan du gaur arte.

Horrez gainera, 1965etik 1968ra *Gogoz* aldizkaria abian jarri eta zuzentzen hasten da.

1966-1967an, ipuinak euskaratzeari ekiten dio, taldean, teologia garaian, ikastoletarako behar beharrezko ipuin unibertsalak.

1966an Alfabetatze-euskalduntze lanetan murgiltzen da. Santutxuko gaueskolak sortu ondoren, lehen urtetik bultzatzailer eta arduradun izan zen. Ibilbide horretan, 1974-1975eko ikasturtean, 1.000 ikasletik gora biltzea lortu zuten. Patxi Uribarren zirimolaren bihotzean da.

Haren zereginetarikook ziren: irakasleak aurkitu eta prestatzea; Bilbo nahiz inguruko herri-auzoetan adinekoentzat eskolak antolatzea: Boluetan, Zurbaranbarrin, Galdakaon, Basau-



Karmel eguneko batzarra, 2005

rin...; ikastoletako 300 guraso euskalduntzeko klaseak jartzea; Karmelo parrokia sortu ondoren *Gaztedi* dantza taldea euskalduntzeko bideak jorratzea, eta abar.

Eragile eginkizunen artean goraipatzekoa da, Euskal Herriko udako lehen ikastaro trinkoak abian jartzea, bera ere egile, irakasle izanik, Arratian, Markinan, Aramaion, Arrazolan.

Egile-eragile zeregin honi ez dio laga, ez unibertsitateko irakasle sasoiari –geroago zehaztuko dugunez-, ezta Diputazioan itzultzaile profesioa hartu zuenean ere, ezta *Karmel* aldizkari-ko urte luzeetan, ezta *Adorez* hiztegi gintzako taldeko ikerlari zein kudeatzaile izan denean ere.

7.3.- Kultura eta giro soziopolitiko

Euskararen eta politikaren arteko diseinazioa egin gura duen espezialistarik trebeenak ere nekez lor lezakeela erakusteko adibidetik hasiko gara atal honetan. Espainiako erregimen guz-



Karmel eguneko batzarra, 2007

tiek egin ohi duten morduan, aldi hartakoek ere, euskaldunen-tzako lehen zigortzat deserriratzea ezarri zutenez, kartzelako euskaldunak aztertzeke urrunera jo behar izan genuen. Patxi Uribarren eta biok Puerto de Santa Mariako espetxera joan ginen Euskaltzaindiko D Tituluko azterketa preso batzuei egitera. Garai haietarako –eta gaurkoetarako ere– gauza handia izan zen burdina artean bada ere, kartzelaratuekin harreman zuzena erdiestea. Edonola ere, aurkitu genuen ingurumaria arrotz bezain etsai agertu zitzaigun. Eta gu euskara dela-eta ginen joan harai-no. Eskerrak umorea zeharo galdu ez genuena ezen, aireportu txikerretik espetxera taxisez gindoazela itaundu bainion Patxiri:

Zertan jabilzak horreek behiok garia ebagi osteko soloan?

Paseoan, -Patxiren erantzuna. Guk barre, gidaria betozko begiratzuz.

Arlo honetan Patxi euskaltzaina ederto baten ohartzen da diglosiaren arazoaz eta hizkuntzaren egoera sozialaz. Ondo-



Karmel eguneko batzarra, 2008

rioz, euskararen barneko historiaz ez eze kanpoko historiaz ere arduratzen da euskaltzale moduan.

Euskara hutsezko giro horretan bizi izandakoak arduraz ikusi izan dugu Aramaioko euskararen ibilbidea. Batez bere eskolaren eraginez edota guraso ardurabako batzuen erruz umeen artean atzeraka hasi zanean. Horrek ekarri eban abalegin handiak eginez ikastola martxan jarri eta urteetan zehar aurrea eroatea.

Karmel 1984-3/4an idazten du: “Extradizioei buruz zenbait gogoeta. Herri eta nazio guztiei gutuna”ren alde, itzelezko sinadura bilketa egin zela, 350.000 izenpeketa baino gehiago lortuz, talde abertzale guztiak elkarturik jokatuta.

Karmel 1986-1ean dakar: “Euskaldunok euskaraz eta Instituzioaren abaleginak”. Hor arduratzen da erakunde publikoek euskararen alde egiten dituzten kanpainez, hausnarketarako artikulua iragarkiz-eta horniturik.

Ari berari tiraka dirau Karmel 1987-4an: Noiz izango ote da euskararen txanda? Abiapuntutzat hartzen du: Orain dela bost

urte argitaratu zen Euskararen Legea". Hala ere, oraindik behin eta berriro euskara exijitzen jarraitu behar dugu.

Bide beretik, 1989-1ean diosku: *"AEK. Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundearen defentsan". AEKk eginiko lanik handiena, euskalduntze-alfabetatzeaz gainera, herritarren artean euskararen aldeko jarrera irabaztea eta hizkuntza bul-tzatzea izan dela esango nuke.*

Artikulu honetan, iritziez landa, Patxi Uribarrenek dokumentu balio historikokoa jasotzen digu, AEKren eta HABEren arteko gatazkaren lekukotasun zehatza eskaintzen duena.

"Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala": azter-tzen du Karmel 1998-2an. *Giza Eskubideen Deklarazio Uni-bertsala onartu zeneko berrogeita hamargarreneko urtea go-goratzen dugun honetan, egokitzen jo dugu hainbeste gataz-karen iturburu izan obi ditugun hizkuntza eskubideak gogora ekartzea. Jarraian, eskubideok banan bana zerrenda-tzen ditu.*

Uribarren euskaltzain karmeldarrak, hizkuntzaren eskubide-ak bezala, pertsonaren garaitikoak ere argiro defendatzen ditu: *Torturarik ez, inoiz eta inon izenburupean Karmel 2006-1. Gaur egun, torturaren aurkako borroka posizio irmo bat eta fase berri bat eskatzen ditu; batetik, torturaren erabileraren aurkako aitzakiarik gabeko gaitzezpeneko planteamendua be-har du, eta bestetik, gerra-justizia eta estatu polizialaren aur-kako borroka ere behar du.*

8.- UNIBERTSITATEKO IRAKASLE

1977tik 1980ra Deustuko Magisteritza Eskolan jardun ge-nuen batera Patxik eta biok, bera 1977an hasirik eta ni 1977-78an Koldo Mitxelena epainahaiburu izan ondoren sartuta. Egunen baten papereratu beharko lirateke, beren beregi, uni-bertsitateko ikasturte haiek, zeinetan gertatu baitzen euskara-ren irakaskuntzaren big-banga.



Edozelan ere, bera ni baino urtebete lehenago hasi zen, 1976an. Karmel 1977-2an eta Imanol Berriaturen Bizitza euskalduntzearen eztandan liburuan iragartzen digunetik: *Horretan nenbilela jaso nuen Euskaltzainditik, Unibertsitateko errektore jaunak egina izan ondoren, Bilboko Irakasle-Eskolan euskarako eskolak abian jartzen jarduteko proposamena. Ordurako abian ziren Gipuzkoako Irakasle-Eskolan, Aldundiak ordainduta bertan ari zirela irakasle-lanetan J.A. Mujika eta J.A. Letamendia.*

Euskaltzaindia unibertsitatearekin batera ageri da lehen unetik beretik, Aita Villasante euskaltzain burua J. L. Lizundia-rekin lehenengo, eta Patxi Uribarrenerekin geroago, Martin Mateo erretorearengana doanean. Programazioa atontzeko ardura ere Patxi Uribarrenek hartu zuen, Salamancan ari zen Koldo Mitxelena jaunaren iritzia jaso ondoren.

Ez nituzke lerrook laga gura kontatu barik zenbateraino suertatu zitzaigun erretore hori aldeko euskara unibertsitatean sartzeko ahaleginetan. Ondo gogoratuko du Patxi euskaltzainak, zenbat bider hartu gintuen beraren bulegoan jarrerarik xeratsuenarekin, hainbestearainokoan non gure Patxik ukondonan ukituz errektore jauna isilarazi ere egiteko adina konfiantza baitzuen. Pozarren geundeke, agian, gaur berton ere erdal baina euskararen mesedetan aritzeko prest dauden halakoekin.

Paragrafo bi gorago seinalatutako *Karmelen* irakurtzen dugu: *“Euskal Unibertsitate Barruti Bakarraren alde”* artikuluan: *Euskara otsoen habia barnean bertan sartu da eta kostako zaie ateratzea*. Maisu-maistra euskaldunak behar ditugula ikas-toletan eta horretarako bitartekorik eraginkorrena *Irakasle Eskola* bera euskalduntzea dela.

Unibertsitatearen historiako ere, txosten guztiz argigarria da Patxik egina. *“Oraindik ez digute ordaindu”* azaldurik, berak 19 talde eta 360 ikasle dituela argituko digu.

Aldi hartako giroaz jabe gaitezen, idazten du Gasteizko Magisteritza Eskolagatik: *Ez dute oraindik euskara batua onartu, eta hori dela-eta, eztabaidak izan dira irakasle-ikasleen artean, Derioko pribatuan gertatu den antzera*.

Gogoratzen naiz zelan hasiera-hasieran, orduz kanpo edo klase orduen artean eskaintzen zitzaizkien euskarazko klaseak. Ikustea izan zen irailean, oraindik kurtsoetako ikasleen zerrenda ofizialak eta hornitu barik zirela, zelan geneuzkan antolatuta ikasleak mailaka euskararen arabera. Haiek bai zerrenda preguthenbergianoak. Bestalde, mailaketaz gainera, irakasteko materiala, irakasleak, ikasgelak...; bazirudien –izan ere bai neurri baten-eta- geu ginela zuzendaritza.

Klaustroetan gero, su dialektikoa ezker zein eskuin, zeren giro akademiko orokorra ere, grebarakoa eta erreibindikaziozkoa baitzen ikasturte haietan. Hala eduki gintuzten –eduki ere zeozertan geniharduen multzotxoa- gauzez entzerronan ikasle protestagileek.

1978-1979ko ikasturtean euskal filologia jarri zen abian. Gainerako ikasleentzat euskara ordutegiaren barruan kokatzea lortu zen.

Patxi Uribarrenek 1976tik 1982rako urteetako ikastaro trinkoekin taldeen eta erakundeen arteko lankidetzak gogoangarria lortu zuen: Aramaioko Etxaguen auzoak –egoitza Uribarren baserrian zeukatelako-, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Alfabetatzen-euskalduntzen ziharduten irakasleek, beti ere bera izanik koordinatzaile-kudeatzaile.

Irakasle sasoi horretaz ekintza akademikoez gainera, hausnarketa ere egiten du *Karmel* aldizkarian: *Oraintsu bertan –Bilboko Magisterion- iskanbila bizia eta galanta izan genuen Magistergo Eskolako euskaldun irakasleek euskaraz egiten hasi ginelako. Karmel 1981-1.*

Imanol Berriatuaren bizitza euskalduntzearen ezteandan liburuan -Bego Bilbaok eta Juan Luis Goikoetxeak eginean-, azaltzen digu Patxik euskara unibertsitatean sarrarazteko prozesu luzea, hona osorik ekartzea merezi duena: Unibertsitateko errektoreak Euskaltzaindiari eskatuta, 1975-1976 ikastaroan joan nintzen bertara. Ordurako abian ziren euskarako eskola batzuk eskola-ordu arautuetatik kanpo, zentroetan lanean ari ziren EKBk antolatuta, bai Irakasle-Eskolan bai zenbait fakultatetan. Alorra bainbatean landuta aurkitu nuen, bada. Eskola horiek ikasleek ematen zituzten eta unibertsitateko kultura batzordetik nolabaiteko laguntza ekonomikoa jasotzen zuten.

Deustuko Irakasle Eskolara joan nintzenean, nirekin batera ikastola munduan esperientzia zuen Agustin Ozamiz ere etorri zen. Honi Leioako fakultateetako euskarako eskolak koordinatzeko ardura eman zioten; nik Deustuko Irakasle Eskolakoa eta Ekonomia Zientzietako fakultatekoa hartu nituen. Horrela jardun genuen urtebetez zehar ordutegia lanean, ordainketa, Agustin Ozamiz jauna ezkondu egiten zenez gastuei aurre egiteko premia zuela eta, salbuespena eginez, 1976-1977 ikas-

turtearen amaieran egitea lortuz. Beraz, hortik bizi beharra izan bagenu, jai izango genuen.

Bertara joan nintzenean biru alorretan jardutea eskatu zidaten, euskarari Irakasle Eskolan leku ofiziala egitea lortzeko.

Lehen urte hori oso astuna eta benetan aldats gora gertatu zitzaidan arratsaldez Santutxuko euskal eskolen koordinazioa eta alfabetatze talde biri eskolak eman beharra nuelako. Hara eta hona presaka ibili beharra izaten nuen eta horrek nekea eta urduria sortzen zidan.

Hurrengo urratsa, esan dudan bezala, euskara ofizial izateko bideak egitea izan zen. Horretarako Donostiako eskolako euskal irakasleekin batera, errektore jaunak eskatuta, Euskal Filologiarako plana prestatu genuen.

Plana egin ondoren Errektore jaunari aurkeztu genion eta bonek Mitxelena jaunari bidali. Hark nabiko azkar erantzun zuen arren, ez zen posible izan hurrengo ikasturtean abian jartzea. Errektore jaunak bilera baterako deia egin zigun Aita Villasante eta bioi Bilbon zuen egoitzara. Bilera horretan Koldo Mitxelenaren erantzunaren berri eman zigun; euskal filologia adarra abian jartzeaz gainera, beste adarretan euskara ikasgai modura sartzea ere planteatu eta aztertu zen eta urratsak hurrengo ikasturtetik (1978-1979) aurrera egiteko hitza eman zuen, horretarako Unibertsitateko klaustroak plana on-tzat jo eta beharrezko aurrekontuak onartu beharra zegoelako.

Urte horretan (1976), beraz, euskara Deustuko Irakasle Eskolan ofizialtasunez sartzeko bideak egin genituen eta unibertsitateko euskarako eskolak bideratzeko lau irakasle-postu ofizial sortzea lortu. Bi Leioako kanpuserako eta bi Ekonomiketakoko fakultaterako. Irakasle Eskolako lehen irakasleok ofizialki Ekonomiketako fakultateko irakasle ginen, Eskola horretan ez zegoelako euskal irakasleak kontratatzeko biderik.

Irakasleak lortzeko, unibertsitateak merezimenduzko deialdi ireki bat egin zuen; lanerako lehendik ari ginen Agustin Ozamiz

eta ni eta Karmele Rotaetxe eta zu zeu, Juan Luis Goikoetxea, aukeratu gintuzten. Pakita Arregi ere aurkeztu zen, baina, lau postu baino ez zeudenez hurrengo deialdirako utzi zuten. Epaima-baikoak, besteak beste, Luis Mitxelena jauna, Alfontso Irigoien eta Jose Ramon Etxebarria (EKB-k proposatuta) izan ziren.

Gure zeregin nagusia, zuk ondo dakizunez, alfabetatze-mailetakoei eskolak emateaz gainera, euskarako eskola guztiak antolatu eta bideratzea izan zen.

Garai hartan Tomas Uribetxebarria jauna zen ICE barruan euskal irakasleen prestakuntza bideratzen zuena, eta nahiz eta Irakasle Eskolako ikasleak oraindik ez izan irakasle, hirugarren urtekoak eta praktiketan jardundakoak balakotzat jotzen zituen laguntza lortzeko orduan eta horrela nahiko diru oparoa lortu izan genuen Euskaltzaindiko "D" titulazioa lortzeko goi mailako ikastaroak egiteko, nahiz beherago ikasleei ikastaro trinkoak kostu oso txikian eskaintzeko.

Irakasle Eskolan egin nituen zazpi urteetan zehar laurehun bat ikasle egin zituzten goi mailako udako ikastaroak, eta beste hainbestek beste maila batzuetakoak, urte gutxitan hainbat irakasle euskaldun izatea lortuz. Goi mailako ikastaro gehienak (Arrazolan egindako bat edo beste izan ezik) Aramaioko Etxaguengo nire jaiotetxean izan ziren.

Aipatu beharra dago, lan guzti hori oso nekez lortuko zela Leioako fakultateetan eta Ekonomiketakoan euskararen alde egiten ari ziren lanaren bultzada izan gabe. Irakasle horien artean geroago irakasleen aukeraketa-mahaian izango zen Jose Ramon Etxebarria jaunaren lana nabarmendu nuke. Oso lagungarri gertatu zitzaigun, baita ere, Derioko eta Donostiako nahiz Eskoriatzako Irakasle Eskolak lanean izatea ere.

Oso epe laburrean, nik zazpi urte egin nituen bertan irakasle lanetan, gorago esan bezala, abiabidean jarri ziren euskal filologia, guztientzat euskara ikasgai izatea, eta karrera osoa espezialitate desberdinetan euskaraz egiteko aukera. De-

na dela, azalpen hau luze joan denez honetan utziko nuke alorra, sakonkiago beste noizbait aztertzeko.

9.- HIZTEGIGINTZAKO IKERLANA

Hogeita bost urte lanean erraz esaten da, baina taldean badi-ra, ez dira joan eztabaida barik, ez eta neke gabe, jakinik horko kideek norbere lanbidea amaitu ostean sartu dituztela horretan orduak eta orduak. Jakitez, *Karmeleko* irakurleak ondo daki holakoen berri ze, Patxi Uribarrenek idazten zuen berri eman- ez. Hala *Karmel* 1995-4an: *Eskerrak, bide batez, Karmel aldiz- kariari gure lan honen berri emateko aukera eskaini digulako.*

Egia biribil-biribila da Patxi Uribarren lexikografian autorita- te onartua dena. Neu ere bera bezala *Adorez* Hiztegegintzako taldekide izanik, baieztatzeko moduan naiz, terminoen defini- zioetan edo kontzeptuen azalpenetan edo hizkuntzetan, kide espezializatuak badirena *Bostak bat* elkargoan. Hala ere, hizte- gigintza orokorrean hartuta –hiztegiak gauzatzeko arte mo- duan- bera da gidari eta aurrelari. Zentzu horretan, lupa kristal lodikoz arakatu beharko litzateke hiztegegintzan zailduago den beste halako hiruzpalau topatzeko.

Une honetan, *Adorez* taldekook 25 urteko ospakizunetan dihardugunean, agerrarazteko moduan gara orain arte burutu- riko ikerlana, milaka etxetan sartu dela. Talde honen eragina zalantza bakoa izan da, areago hasierako urte askotan, bai ira- kaskuntzarako eskaini izan duen ikuspegi pedagogikoarenga- tik, baita landa lana eginik milaka berba modernitatearen ko- rrontera ekarri izan dituelako ere.

Jar dezagun gure arreta Patxi Uribarrenen hiztegegintzako ibilbidean, *Adorez* taldearenean, bide batez, Euskaltzaindiare- kin izan duen harremana ezagutzeko eta irakasleentzako titula- zioaren historiaz jabetzeko.

Ni Euskaltzaindiak 1971eko irailaren 5ean Barrutia zena- ren omenez Aramaion bilera egin, eta, bertan eginiko eskariari



“Bostak bat” taldeko kideak Euskararako Hiztegiak jasotako saria eskuetan dutela

jarraituz, Donostiaan irailaren 24an euskaltzain urgazle izendatu nindutenean, Euskaltzaindiarekin barreman estuetan hasi nintzen. Handik laster, Euskaltzaindia euskarako “D” eta “B” tituluak prestatzeko programa egiten hasi zen eta 1972an deialdi zabal bat egin zuen urteetan alor horretan jardunean ibilitakoei merezimenduzko titulazioa emateko. Asmo nagusia, jakina, aurrerantzean tituluak banatzeko epaimahairako talde bat osotzea zen. 1972ko apirilaren 9an eman zигuten batzuei euskarako titulu hori eta akta egiterakoan Epaimahaikoek diote oso zorrotz jokatu nahi izan zutela, gutxiri emanez, euskararen izen ona zaintzeko.


Garai horietan, egin-eginean ere 1972ko ekainaren 30ean, Euskaltzaindiak “Euskalduntze-Alfabetatze batzordea” sortu zuen. Horrek, batetik, euskara irakasten ari ziren taldeak bide berberera ekarri zituen eta bide batez euskarako titulazioak

emateko talde bat antolatzea bideratu. Talde hori Alfontso Irigoien jaunaren ardurapean eratu zen Joanjo Zearreta idazkari zelarik. Geroago ADOREZ taldea sortu genuen gebienok batzorde horretako kideak izan ginen.

Titulazioa abian jartzeak, bestalde, horretarako ikastaro bereziak jartzea ere eskatzen zuen, eta zenbait tokitatik eskariak jaso ondoren, batzorde horretan ari ginenok batu eta Bizkaia aldean ikastaroak emateko talde bat osatu genuen. Ikastaro horiek aste barruan eta larunbatetan (Zornotzan “D” mailako titulazioa lortzeko ikastoletako andereñoentzat eta Deustuko unibertsitatean “B” titulazioa lortzeko gainerakoentzat) ematen genituen. Aste barruan Aresti, Ullibarri eta Zabala euskaltzegiekin; larunbatetan Zornotzako ikastolan eta geroago Bilboko Urretxindorra ikastolan ere eman genituen. Udan Iruñea hiriko UEUko udako ikastaroen barruan.

Zeregin horretan urteetan jardun eta gero, ikastaro horiek emateko nahikoa irakasle prestu zegoela bazterretan ikusirik, horretan jardun izandako taldeko kide batzuk urrats berri bat eman beharra ikusi genuen. Egin-eginean ere halako ikastaro berezietarako falta zen materiala prestatzea. Horretarako Bostak bat taldea (bost euskalki nagusiak gogora ekarritz: bizkaiera, gipuzkera, goi/bebe nafarrera, lapurtera/zuberera) sortu genuen eta lanean hasi. Lehenengo bi liburuxka (fonetika eta geografia-historiari buruzkoak) argitaratzeko laguntza eskaini genuen. Jarraian beste premia batzuetarako materiala prestatzeko lanetan jarraitu.

Lanerako taldekideen gogoan eta prestakuntzen arabera bi talde osotzea erabaki genuen. Talde batek “D” mailarako sinonimoen hiztegi egoki bat prestatzeari ekin genion, eta besteak “B” mailako titulurako goi mailetako literatura, linguistika, azterketa literarioa eta abar emateko gaiak prestatzen. Azkenean, aurrea hartu genuen sinonimoen hiztegirako lanean ari ginenok, euskara hutsezko sinonimoen lehen hiztegia 1983an argitaratzea lortuz.



Irudia:

Amaia Montorio eta Jabi Ubierna

horrek aurrera egiteko bultzada eman zигun.

Irratirako eginiko elkarriřketa horretan ea zergatik ez genuen definiziozko euskal hiztegi bat egitera jotzen galdetu zigun. Guk aztertuko genuela gaia erantzun. Eta hala egin. Horrela, Euskararako Hiztegia izango zena prestatzen hasi ginen. Jo eta ke ekin genion lanari 1984an, definitu beharreko oinarriřzko zerrenda aukeratuz eta materiala prestatuz. Guzti hori uda baino lehenago izan zen.

Definiziozko hiztegi hori burutzeko, baina, jendea behar genuen eta lan horretarako euskara oso txukuna zuen Luis Baraiazarra karmeldarrari taldean sartzeko eskaria luzatu genion. 1986an argitaratu genuen arrakasta baina handia izango zuen EUSKARAKO HIZTEGIA. Hiztegi horri jendeak eginiko harrerari esker iraun izan du, bainbatean, gure taldeak hiztegi gintzan lanean. Horri esker Luis Baraiazarra irakas-kuntzako lanetik askatu eta buru belarri hiztegi gintzan jardutea lortu genuen. Hiztegi hori argitaratu genuenean Euskal Libururik onenaren saria jaso genuen.

Geroago etorri dira beste zenbait hiztegi (euskara hutsean: *Sinonimoen Hiztegia*, *antonimoduna* (berriztatua eta handitua); *Sinonimoen Hiztegi handia*; *Oinarrizko hiztegia*; *Europa Hiztegia*, *Eskola Hiztegia*; elebidunak: *3000 Hiztegia*; *3000 Eskola Hiztegia*; eta, azkena, hiztegi baten antzera aurkibide gisa antolatutako *Euskal Aditza*; beti euskara egoera berrietara egoitzeko lanetan jardun izan dugu.

Beno, alor hau, bizitza luze bateko (hogeita bost urte bete ditugu) kontakizuna dugunez, laburtzen ahalegindu naiz. Gure taldeak bizirik iraun du eta lanean dihardu hiztegi horiek eraberritzen. Bide batez esan behar da *Europa Hiztegia* izan zela CD-an euskaraz agertu zen lehen hiztegia eta *3000 Hiztegia* CD-an argitaratutako lehen hiztegi elebiduna. Une honetan Eusko Jaurkitzako sarean ditugu *3000 Hiztegia* eta *Sinonimoen Hiztegia*.

Esan beharra dago lan luze eta oparo horretan ez dugula Bostak bat lantaldeko kideok (Gotzon Aurrekoetxea, Ricardo Badiola, Luis Baraiazarra, Juan Luis Goikoetxea, Txomin Solabarrieta eta Patxi Uribarren) bakarrik lan egin. Beti abalegindu gara euskara alorrean jakitun direnen lankidetza geureganatzen, eta horren lekukotasuna duzue gure hiztegien sarreretan ageri diren izenak. Laguntzaile horiek banan-banan eskertu nahi nituzke. Era berean, aparteko abaleginez tratatu izan ditugu euskalkiak, gure euskararen oinarria horietan gauzatzen delako.

Azkenik, 26 urteren ibilbidearen ostean, hiztegegintzari bukaera emateko, azal daiteke, Patxi izan dela gidari hiztegi guzti horiek oinarri izan dituzten hainbeste ikerketa sakon eta neketsutan.

Finean, hiztegegintzan, 25 urte eder eskaini dizkio Patxi Uribarrenek –taldekideekin batera, jakina- euskarari gizarte modernorako egoki dadin.

10.- ITZULTZAILE PROFESIONALA

Patxi Uribarren Leturiagaren lanbide nagusiak –fraidetza lanbide baino zeregin baldin bada- irakasle lana eta itzultzaile

lanbidea izan dira. Irakasle gaueskoletakoa izan dena “Vox populi” da Santutxu aldean; unibertsitatean izan dena, kontu isilagoa da, ibili ere euskararen sorreretan, euskaldun gutxi zebilenean ibili baitzen; itzultzailetza, aldiz, ezaguna da, bai kanpoan, baita –era nabarmenean- Foru Aldundian bertan ere.

Karmel 1992-2an Bartzelonan aurkitzen dugu itzulpengintzan: “Itzulpenari buruzko nazioarteko lehen jardunaldiak Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan”. Dioenez, Informatika itzultzailearen “itsumutilik” onena bilakatu da; bestetik, penagarria erdaren eraginez euskararen berezko jatortasuna “kutsatzea.

Karmel 2004-an, Julen Urkiza aldizkari horretako zuzendaria eskatu ziola-eta, A. Emiliano Barandiaranek egindako itzulpen lanei buruz diharduela hauxe dakar Patxik Luis Baraiazarraren berbak kopiatuz: *“Itzulpena, oro har, era askotakoak izan daitezke, baina bi joera nagusi antzematen dira sarritan: bata, mezua al bait zebatzen bildu ondoren, gainerakoa an askatasun handiz jokatzen duena; bestea, berriz, jatorrizko bizkuntzako mezua eta formaren baliokideak beste bizkuntzan egoki adierazten dituen. Bigarren hau dela dirudi itzulpen on batek bilatu behar lukeena, beti ere, formari dagokionez, jatorrizko bizkuntzaren kalkoetarantz irristatu gabe...”*.

Bizkaiko Foru Aldundira zelan etorri zen itauntzean, zehatz-zehatz erantzuten du: *Bizkaiko Aldundian euskarako itzultzaile-postu bat sortu zenean, Euskaltzaindiko batzuek aurkezteko eskatu zidaten postuaz euskara batuaren aurkako norbait jabetuz gero euskarari kalteak etorriko zitzaizkiola eta. Ni, egia esan, oso pozik nengibilen lanean Irakasle Eskolan. Ia egun osoa euskaraz egiten nuen. Irakasle talde ederra osotzen genuen (30 irakasle euskaldun baino gehiago) eta nik nituen ikasleak euskal filologiakoak eta alfabetatze mailakoak izatean, euskarra hutsean jarduten nuen.*

Oposaketak egin eta lanpostua eskuratu nuenean, basieratan apal-apal jardun behar izan nuen premia handiak izan



*Patxi Uribarren eta
Luis Baraiazarra
Pirinioetako oporraldi
batean.*

*arren, inolako antolaketarik ez zegoelako bertan. Erraztasu-
nak eman zizkidaten egoera aztertu eta proposamenak egite-
ko. Asko lagundu zidan Jose Maria Makua ahaldun nagusia-
ren idazkaria zen Bernardo Arrizabalaga jaunak. Beti izan
nuen prest administrazioko zirrikituetan zehar ibiltzeko la-
guntza emateko orduan. Ubideko baten ondoan jarri ninduten
eta hori ere berari esker izan zen eta niretzat oso pozgarria,
euskara erabiltzeko aukera eskaintzen zidalako. Bernardok
ateak ireki zizkidan eta Aldundiko Sail guztietan zehar inkes-
ta zabal bat egin eta txosten batean agintariei proposamen ba-
tzuk egitea lortu nuen.*



Urte gutxiren buruan sei itzultzaile-lanpostu berri sortu ziren eta hortik aurrera euskara gorpuzten joan da. Euskara oposaketetan eskatzea ere areagotu egin da. Gaur egun, zuk oso ondo dakizunez, bideratua dugu euskararen alorra Kultura Sailean sortutako Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren bidez. Abian ditugu itzulpen-zerbitzua eta funtzionarioak euskalduntzekoa. Zeharo aldatu da egoera. Une honetan bostehun bat langilek du Bizkaiko Foru Aldundian euskarako titulua edo hirugarren eskakizun maila. Zenbaitek laugarren eskakizun maila ere bai. Beste kontu bat horrek herritarrekin izaten dituzten harremanetan zer-nolako eragina duen neurtzea! Egun eguneko lanaldi osoa euskara hutsezko egoeran izaten dut. Teknika berriak oso ongi ezagutzen dituzten itzultzaile berri trebatuak etorri zaizkigu, eta balaxe hartzen dut erretiroa.

Erretiroa, dena den, soldatapeko lanbidetik hartuko du, ezen *Karmelen* zein euskal munduan lautada amaibakoak toparaziko baitizkie ingurukoek. Ondorioz, han Lixieux-ko Tere-

saren *Idazlan guztiak* liburuan legez, beste askotan ere agertuko da itzultzaile. Gainera, -arriskua handiagotzeko, Euskaltzaindia jakitun dago aramaioarraren trebetasunaz.

11.- ERLIJO BIZITZA

Egunotan, Gran Via Bilbokotik behera natorrela Joseba eta Marian topatu ditut aurrez aurre semaforo berdean. Egun on! eta ohiko oles berbak elkarri labandu ostean, nik, ba, Patxiren biografia egiteko euren kontutxoak eta ere gurako nituzkeela-eta, bat-batean Josebak:

- *Patxi frailea da!*

Harritu ninduen perpausa lakonikoak ze, jakin bazekien neuk ere fraidea zena banekiena.

Ba, Patxi Uribarren fraidea da. Berak honela erantzuten du zergatik karmeldarren ordenan eta ez beste batean itaundueran: *Egia esan, ni txikia nintzenean Aramaion sarriago izaten genituen frantziskotarrak eta pasiotarrak. Misioak ere eman zituzten azken hauek. Apaiz ikasketak egitera seminariora joaten ziren mutiko gebienak, batez ere Ibarra ingurukoak. Ni baino bi urte lehenago Aita Gabirel eta Aita Gotzon Jauregi karmeldarren bi loba joanak ziren Zornotzara. Fraide karmeldar bi horiek aita-ren lehengusuak ziren. Amak ere izango zuen seguruenik borretan eraginik, Arrazolan Karmengo amarenganako debozio handia zuten eta. Ama, gainera, Karmen deitzen zen. Nire aurreko anaia Oñatiko Kalonje Agustindarren etxean ibili zen ikasten eta bango giroak ez zituen asebetetzen gurasoak. Horretan izan nuen zer bitxi bat ere. Orduan txarto ikusia izaten zen norbait fraide joan eta handik gutxira etxera etortzea eta ni nabikoa lotsatia nintzanez, badaezpadan edo, aitak Zornotzako ikastetxea ikustera bidali ninduen amarekin. Aita Lukik oso ondo hartu ninduen eta bara joan eta bide borretatik jarraitu izan dut.*

Joseba Basterrak esan didanez –umorea ere ondo datorrela-eta- behin bateoa errekan egiten zebiltzala, Juanjo anaia ureta-

ra jausi eta hondatu egin zen. Honetaz galdetu nionea, Patxik honako hau erantzun zidan: *Vatikano Kontzilioaren ondoren, pil-pilean izan genuen Eliza. Euskal Herriko hainbat tokitan bide barriak abian jartzen hasi ziran. Santutxun bere umeak jaio barri bateatu beharrean, gazte egiterakoan egin behar zala uste izan, eta guraso batzuk bide horri ekin eutsoen. Euren batzarrak bideratzen zituen abadea sekulartu egin zanean, niri eskatu eusten ibilbide horretan bide-lagun egiteko. Eta hala hasi nintzen zeregin barri horretan. Egia esan, ezagunak nituen guraso gehienak gau-eskoletatik. Bateoak, baseliza eta erreka alkarren ondoan batzen ziran lekuetan egiten genduzan, kristau herri osoarekin genduan alkartasuna eta erreka-urak emoten eban Jesusen bateoaren antza bateratu guran. Ez zan gazterik uretan sartzen; bai, ostera, uretako ura bedeinkatu eta bertan buruak makurturik zituela, burutik behera ur ugari isuriz bateatzen. Gehienetan egun osoko ospakizuna izaten zan. Behin batean Arrazolan egin genduan San Roke baselizaren ondoan dagoen errekan. Norbaitek amaieran, pozarren 'etxafleroak' bota, eta egundoko jakingura edo nahastea sortu zan inguruko soloetan lanean ebiltzanen artean. Norbaitek Elorrión bizi zan bertako parrokoari zer bait esan eutson, "sektaren" batekoak edo ginelakoan. Geroago jakin izan dodanez, nahiko barre egin ei eban parrokoak ni nintzala jakitean (liturgiarako testuak euskaratzeko batzar batzuetatik elkar ezagutzen genduan eta), eta hainbat herritarrek be bai, bertan hainbat ospakizunetan egona nintzalako. Nire ama bertakoa izatean, aurretik bere ezkontza, hileta eta horrelako hainbatetan ibilia nintzelako. Ez dot gogoratzen nire adiskide Joango Basterra erreka-jausi zanik. Baliteke, erreke-
ra jaisteko aldatsa egoan eta.*

Patxi Uribarrenek kristautasunaren iparorratza norantz zuzendu argi bezain garbi darakusa: *Nazareth-eko Jesus, batez ere, gizartean beharrizanean aurkitzen zirenen alde jarri zen. Horrek eraman zuen heriotzara. Hori, fededun ez denarentzat ere eredu zirrargarria eta, baita, imitagarria da. Ezin da ete-*



Elizkizun batean.

nik egin fedearen eta bizitzaren artean, azken batean fedea bizitza ikusteko eta bizitzeko ikuspegi konkretua dugu eta.

Guzti honetan, arazoaren larria, baztertuenak edo txiroak nortzuk diren eta zelan lagundu behar zaien zehazterakoan sortzen da. Nik, gure Euskal Herrian egoera gorrian ikusi izan ditut beti, eta oraindik hala jarraitzen dutela uste dut, euskaldunak eta euskarak, geure etxean bertan zokortuta eta baztertuta izan garelako eta jarraitzen dugulako.

Askotan geurea ez den bizkuntza batean bizi beharrean izaten gara! Guzti hori kontuan izanik, neure esku zegoen adinean egoera hori aldentzeko laguntza ematen ahalegindu naiz.

Neure bizitzan, egunerako neure betebeharrak (hor sartzen dut horretarako premiarik izan ez arren beste edozein langilearen antzera bizimodua lan eginez ateratzeko hartu nuen erabakia) bete eta gainerako tarteak euskararen aldeko lanetan eta erlijio-zereginetan erabiltzen ahalegindu naiz. Nire egoera pertsonalak ere (erlijioso bizitzan, familiako gurasoek dituzten lan eta ardurak ez ditudala) hainbatean lagundu dit asti gehiago izatea eman didalako.



Etxaguengo elizan Gabirel Jauregiren omenezko mezan.

Behin norabidea irmo markatuez gero, ondorik datozen planteamenduak koherenteak dira:

Erlijioko joko zelaia zein izango den ulertzeko, dena den, komenigarri da Patxik bizi duen giro historikoari erreferentzia egitea: *Egia esan, 1970-1980 arteko hamarkada horretan zeharo aldatu zen komentuetako bizimodua. Hainbatean ireki ziren bertako ateak eta ugaritu beste erlijiosoeekin nahiz sekularrekin genituen barremanak. Nire kasuan, gainera, euskarako gau eskoletan eta buru-belarri ari nintzenez, ez nuen inolako trabarik izan barreman guzti horietarako. Hitz egin metodoari bultzada ematen ere saiatu nintzen nire alfabetatze eskoletan Amurizak prestatutako kontakizunak eta erabiliz.*

1985-4an hauxe dakar: “Giza- eskubideen aldeko borroka”. Kristauok, beraz, Jesusen mendiko ZORIONBIDEAK geure egin eta elkarren arteko nebarrebatasuna aitortzen baldin badugu, hori benetan munduan nagusitu dadin arte, jo eta ke, etenga-

be burrukatu beharko dugu Giza-eskubideon defendatzaile porrokatu edonon agertuz.

Idazlanak eta itzulpenak ere, erlijiorakoak, ugari ditu: Aita Be-obideren igande eta jaietako *Homiliak* Karmel 1991-1ean ; “*Espirituzko biziera Edith Stein-en ikuspegiz*”... Karmel 1998-2an.

1987-3an, Ameriketako indioen aipua axiomatzat hartuz, eskribitzen du: “*Persona eta klase bezala pairatzen dugun zapalkuntza baino funtsezkoagoa dugu herri bezala jasan behar duguna*”.

Karmel 2005-3an idazten digu: “*Egin bideak bakeari*”. *Gaurkotasun galdu ez duelako ekarri nahi dut gogora orain dela zazpi urte bostehun apaiz-erlijiosok baino gehiagok kaleratutako hurrengo hausnarketa hau. Lagundu biezaio norbaiti bake-bideak urratzen.*

Azken buruan, orain ere taldeko sinesmen bizitza praktikatutik, Oharrizeko gogoeta astean, euskara hutsean, fedea sinengarria eta bizigarria da idatziko du: *Esan bezala, gogoeta-bide eta atsedeen iturri bilakatu zitzaizkigun otoitzaldi hauek, egin eginean ere egunean zehar gure espirituak asetaseren zeramatzaten unerik ederrenak (...). Jarri ere nori ez diote dar-dar jartzen bihotza honako olerki hauek bezalakoak:*

Zure minak nire min
nire minak zure min,
banabil ni Zurekin. (Iratzeder).

Berehala, baina, giro kutunetik konpromisora ziztu bizian aldatzen da: *Otoitz horiek, bestalde, ez ziren inguratzen gaituen mundu aldakor eta globalizatutik ibes egiteko aitzakia, konpromisorako dei ozena baizik.* Karmel 2002-3an.

12.- HUMANITATEETAN JAKITUNA

Patxi Uribarren euskaltzainaz humanitateetan jantzia dela aitortzea ez da guztiz ortodoxoa, ezen humanitateak definizioz berehalako aplikazio praktikorik gabeak dira, hau da, espiritua

aberasten dutenak, dela hizkuntza klasikoak, dela filosofia edo historia, eta kasu honetan praktika teoriari dautsola dator.

Patxi teologian eta linguistikan lizentziaduna denez, bietarako tesi txikien berri ezinbestean eskaini behar zaio *Karmeleko* irakurleari. Horretarako –biografia honetan metodotzat hartu dugunari jarraikiz, Patxiren testuak hona ekartzea da bidezkoa: *Aramaioko toponimia lana, linguistikako lizentziaturarako egin neban. Aukera ederra izan neban, auzorik auzo Aramaioko bazter guztiak ezagutzeko. Metodologiari dagokionez, Koldo Mitxelena jaunarekin berba egin ostean, haren abolkuak kontuan hartuz gertatu neban. Lehenengo udaleko katastroko datuak fitxetan batu nituen; horren ostean militarrek egina eukeen Aramaioko maparen kopia zebatzu eskuratu neban; lantxaiari basiera emoteko toki jakin batean jarri, kokagunea, ondo ezartzeko, iparrorratz bidez markatu mapan, eta lau norabideetan lurren izenak, sailean, interpretazioa egiteko abalik eta ezaugarri gehien batuz, jasotzen abalegindu nintzan. Esate baterako, ‘Etxango Atxa’ deitzen dogun mendialdean, sailean-sailean jokatzu lauorgeri bat toki-izen ezberdin jaso nituen. Datuak batu ostean, azalpenak euskaraz eta erdaraz jarri nituen, bietara aurkeztu behar izan neban eta. Gero lan hori Arabako Aldundiak argitaratzeko asmotan izan eban, eta inprimatzeko lanetan hasi bere bai. Aldaketak izan, eta ez zan aurrera erotan. Lan luze horren laburpena (toponimoen kokapen eta deskripzio daturik gabe) eta ondorioak KARMEL gure aldizkarian argitaratu nituen Gabirel Jauregi Uribarren, nire aitaren lehengusu eta auzotarrari eskaini geuntson liburuan (1995).*

Teologiakoaren gainean haxe dakar: *Teologiako tesi txikia, Lisieux-ko Teresa Jainkoaren txiroa” deitua, Periko Nuñez irakaslearekin egin neban euskaraz Deustuko Unibertsitateko Teologia fakultatean. Lan horren laburpena KARMEL gure aldizkarian (1996, 143-164 or.) argitaratu neban. Tesia egiten izandako gogoetak asko lagundu deustee gerora, batez ere gizaratean baztertuta dagozenen, hau da, “txiroen” aldeko auke-*

ra egiteko orduan. Euskaldunok ere, hizkuntzari dagokionez, multzo horretan gagozala ikusi izan dot, eta hori izan da, bainbatean, buru-belarri, eten gabe, euskararen alde lan egiteko izan dudana akuilu-ziririk zorrotzena.

Linguistikan lantzen duena, ikasten ari den une berberetik darabil gau eskoletan, material prestaketan, toponimiako landa lanetan eta hiztegitan.

Karmel 1974koan, Arabari buruz diharduela, toponimia lanak egiteko metodologia jorratzen du. Burutu ere ikerlan bi burutu zituen gai honen inguruan, bata, Aramaio toponimiaz, bestea, Agurain inguruko toponimiaz: *“Une horretan, Arabako euskaltzain urgazle batzuk tarteko zirela Arabako Al- dundiko Kultura Batzordeko kide izendatu ninduten eta toponimia-bilketa batzuk abian jartzeko ardura eman. Deustuko unibertsitateko ikasle batzuekin Agurain inguruko toponimia-bilketari ekin nion. Aramaio toponimia euskara aztertze gogoak ere banituen, baina grabaketak egiteko magnetofoiak eskuratzeara atzeratu egin zen eta bide bazterrean geratu zen proiektua”.*

Corpusari eskaintzen dion arretaz ohartzeko, eskura dator jarraian idazten duena: Karmel 1984-1/2an *“Euskal Herrian harribitxi bila”*. Uda honetan, ustekabean, Aramaio jaiotako emakume batengandik jasotako zenbait hizkuntza bitxikeria eskaini nahi dizuet. Emakumearen izena Karmen Arrizabalaga, Aixolako Patxitxenean jaioa. Tamalgarria magnetofoi ez biltzea halako joko, kantu, esaera zahar, bertsoak.

Karmel 1985-1ean, *“Euskara batu, euskalkiei buruzko Eibarko Jardunaldiak”* da izenburua. Bertan emandako bitzaldi interesgarri batzuk eskainiko dizkizuet gaur. J. L. Davanten mintzaldia atal interesgarriena. Hemen, kritika gauzatzerakoa, teoria ere erabili beharrean dela ohartzen gara.

Mintzagaia eta galdegaia hartzen ditu gogoan 1986-4 alean, Karmelen. Erakusten du, linguistikan aditua dela, sakontzen duenean, Koldo Mitxelenaren, Lino Akesoloren eta Altuberen iritzietan.

Ortotipologiaren gaia argituz, Karmel 1992-4an “Hitz elkartuen osaketa eta idazkera” argitaratzen du. Taula erabat pedagogikoa dakar noiz marra eta noiz ez argudiaturik. Hainbat urtetan erabili izan dugu batxilerreko ikasleekin taula hori.

Filologiako ikasketak praktikara eroateko, bizkaiera ederrean idazten du: *“Frai Bartolomeren Euskal Errijetako Olgeta...liburuaren argitaraldien nondik norakoa”*. Bertan, Patxi Uribarrenek eta Julen Urkizak diote: *“Beraz, hurrengo lerroetan, Altunak, beste batzuetan egin izaten dauan modura, obarretan ezer esan barik, eginiko zuzenketa (edo berak egindako akatsen) zerrenda dakart bona*. Karmel 1998-2.

13.- PATXIREN BIZITZAKO ANEKDOTAK, PASADIZOAK

13.1.-Konstituzio eta artaziak

Tejerina jauna unibertsitateko kontratuen kudeatzailea zela, kontratua sinatzera joateko agindua jaso genuen Leioako Kanpusetik Patxik eta biok. Heldu gatazka hara eta abiatu –euren agindua betez- kontratu-paperak lerroz lerro irakurtzen. Ez zirudien akats nabarmenik agertzen zenik. Gainera, dirurik kontratu gabe-eta luzaroan jardun ondorik, poz dantzan ginen irakasle beste batzuen antzeko izateko ilusioz. Kontua da, ordea, dokumentuaren azkenean –ohikoa denez- sinadura eskatzen zela eta eskatu ere aldamenean hizki handiz azaltzen zen Espainiako estatuko antolamenduan baietza emanik. Kitto! *-Ni ez najoak hau izenpetzen!*, Patxik. Neuk ere, ba, ezetz orduan.

Hurreratu gara Tejerina jaunarengana –artean andrazko idazkaria zurbil laga ostean- eta: *“Hombre por Dios!, ¿cómo se os ocurre eso?”* Jakina, Tejerina horrek Patxi fraidea Karmeloko parrokiatik ezagutzen zuen. Eztabaidak, mesedezak, por favorrak, finean konponbidea. Imajina lezake irakurleak zein? Hartu artazi handiak eskuetan eta dokumentuaren oinean agertzen zen Espainiako erreferentzia ebaki zen, eta orduantxe sinatu.



*Karmel aldizkariaren azken 25 urteak ospatzeko
Normandian zehar egindako bidaia (2008).*

Hala geratu zen dina 4ko folio hura, azpiko zati bat kenduta. Emango nituzke orduko 25.000 pezeta dokumentu hori artxiboetatik erreskatatzeagatik.

13.1.- Arrautza egosiak ez dira galtzen

Euskalduntzen taldeko ikasleak goi mailara heldu direnean, kulturarako ere ondo datorrela-eta, ikasitakoa praktikatu ere egin behar dela-eta, autobusezko txangoa antolatu dute Santutxun. Iparraldera abiatu dira, bidean ikusirik Amaiur, Zugarramurdi eta halako leku zein baino zein politagoak.

Autobusean doazela, euskara erabili egin dezaten Patxik dinamizatzen du taldea, behin azalpenak emanik, hurrengoan taldeetara hurreratuz. Ikasleak, baina, arren eta arren, astiroago

berba egiteko irakasleari ez dutela ulertzen-eta. Baina Patxi berean, ohitu egin behar dutela belarria erritmo naturalera.

Bestalde, bidaiari guztiak dira andrazkoak, Puri, Kontxi, Marian..., Patxi da gizonezko bakarra –eta txoferra ere bai-.

Ibilaldia egun bitarako denez, Patxi Etxaguen auzoko aramaioarra izanik –oilarrak arrautzari ez duena erruten ondo dakiena- gomendatu diete ikasle emakumeei arrautza egosiak eramateko, hurrengo egunerako ez baitira galtzen.

Kontua da, iritsi dela bigarren eguna; hasi direla ikasle guztiak eta Patxi Uribarren jatekoa ateratzen eta zientoak arrautzak, ehundaka arrautza egosi agertu dela mahai gainean.

Harrezkero, Santutxuko auzoan, han Karmelo inguruan, inork arrautza konturik aitatuez gero, laster dela erantzuna:



Chartresko katedralaren aurrean.



Caengo Bizitazioan Leonia Martin, Teresa Lisieuxkoaren abizparen liburuan sinatzen.

- Arrautzak? Ez dira egosiak izango!

13.2.- Buru makur Abando hotelean

Noizbehinka, *Adorez* taldeko hiztegigileok Abando hotelera joaten gara bazkaltzera. *Badatoz Euskaltzaindikoak esan ohi dute zerbitzariak, -albistea ez abal da helduko Andres Urrutia-renganaino!-*. Hain zuzen ere, hara joaten bagara izaten da, Rikardo Badiolak kurtsokidea duelako bertako gerentea, Olalde Larraurikoa.

Egun dontsu baten ere bertaratu ginen Txomin Solabarrieta abadea, Luis Baraiazarra karmeldarra, hau Patxi barau ere karmeldarra dena, Gotzon Aurrekoetxea, Rikardo, gorago aipatua eta neu, Juan Luis Goikoetxea.

Hurbildu zaigu ezagun genuen emakume zerbitzaria, baina ez betiko xerak eta zerak eginik, ezpada hotz-hotz, menuetako



*Bidaia bereko
argazkiak.*



karta mahaian lagatzen. Guk geure hiztegi korapiloetan abiatuak ginen.

Behar du, edonola ere, erne jarriarik egon irakurleak, ezen aste berean hil baitzen ohean lo lasaian zetzala Santutxuko neskato gaztea. Eta, itzala dena, urte parez lehenago hil zitzaien elurrak narra eginik beste ahizpa Pirinioetan taldean joana zela. Beraz, alaba biak zituzten galduak gurasoek.

Menu aukeratuak apuntatzera bigarrenaz inguratu zenean arteko andrea, berbaz hasi zen, tonu mingotsean, Patxiri eta erlijiosoei galdera zorrotzak jaurtikiz: Zer Jainko da ama neure-



Mont-Saint Michel-en.

kin lanean diharduena ume barik lagatzeko? Zer diozue zuek honen aurrean, alaba biak kendu eta ama errukarria kantzerak jaten uzteko?

Isiltasuna, erlojua mugimenduan, Patxi, Luis, Txomin eta gainerakook buru makur.

13.3.- Patxi eta astoa errotara

Honela narratzen du berak Patxik *Karmel* 1981-3an: *Eta bat batean, gaztetako gertakizun bat etorri zait gogora. Baserri giroan bizi nintzenean –halakorik ez zaigu zoritxarrez Bilbo zikin handi honetan gertatzen- jasotakoa.*

Egun batez, astoa hartu eta beste auzune batetako errotara joan behar izan nuen garia ehotzen eramatera. Ordu t'erdi inguru txandan itxaron eta han nuen nire galirin zakua. Pixua zuela eta astoa errotara sartzeko agindu zidan errotariak. Eta nik abaleginak egin arren inolaz ere ezin. Hain mantso

eta esaneko zen astoak ez zuen bere belarririk ate hartatik sartu nahi. Etorri zen errotaria bera ere, baina guk arre esan arren berak itxuraz iso ulertzen zuen.

Direnak eta ez direnak egin behar izan genituen astoa barrura sartzen. Azkenean sartu genuen bai, baina burua zakuz estaldurik eta sekulako makilakadak eman eta buztan bihurtak eginik. Errotariak, berak bultza egiten zion bitartean, buztana gogor bihurtzeko agintzen zidan, bina nik ezin ikusi balako egoera larrian hainbeste maite nuen asto laztana. Eta hori denoi errotariak ahalegintxo bat ez egiteagatik. Azkenean baserre bizitan balako zerbait esan nion: “Urun zakuak gari zakuak baino pixu gebiago dauko ala?” Eta berak patxadaz erantzun: “Ez baina ikasi daiala hurrengorako!”.

13.4.- Baso-basoan kanpinean

Patxi eta biok motxaileen moduan ibiltzen ginan kanpinean -dio Luisek, minidiskoan grabatzen dudana bitartean. Erreka



Lourdesen Teresa Lisieuxkoaren irudiaren aurrean.

ondoetan eta hartzen genduan lekua, lantzar bat edo egoten zanean, gero ontziak garbitzeko. Nafarroara asko joaten ginaran, Zaraitzu aldera eta Erronkari aldera, asko. Oso pozik igaro genduan Otsagabiako gainean. Muskildiko amaren santutegia dago hor, monumentua. Hor landa bat badago. Han ibiltzen ziran turistak-eta, kanpotarrak-eta. Gu pinadi batera edo pagadira edo sartzen ginan. Gustura egiten genduan lo, bake-bakean. Ha izaten zan naturaleza gozatzea. Inork ez euskun ezer esaten.

Halako baten, hor Irati inguruan kanpin bat egoan. Kantuka eta zarataka ibiltzen ziranez –gazteak izanik-, guk kanpinetik kilometro erdira, gura izan genduan lekuan ipini genduan denda hori. Goizean guardia zibilak etorri jakuzan, galarazota dagoala, kanpinean egon behar dala. Guk ez genkiala, aurreko urteetan inork ez euskula ezer esaten. Gainera, gaueko orduetan be zaratea egoten zala kanpinean. Guk bakea gura genduala. Horixe gertatu jakun. Halan be, gu lehengotan ze, goroagotxuago Sorian, La Laguna Negraren ondoan ipini genduan kanpina-eta!

Orain, azken urteotan, menditik itsasora aldatu dugu oporraldietarako jokerea.

13.5.- Eraikuntza goitik behera

Patxik era honetara kontatzen du Imanol Berriatuaren bizi-tza euskalduntzearen eztanda liburuan: Aitatu dizudan beza-la, teologiako ikastetxea ixtean, hainbat lokal geratu ziren butsik sakristiaren gainean. Guztiak antolatu eta parrokiako eginkizun desberdinetarako erabiltzen hasi ginen. Hala ere, 1970. urtean elizan berokuntza berria jarri beharra izan eta obrak jarri ziren abiabidean. Sakristia azpia zulatzen hasi ziren bertan jarri behar zirelako berokuntzarako motor nagusiak. 1971.eko udaberrian, baina, aste pare batez euria egin eta egin izan ondoren, behera erori zen alde guztia. Izugarritzko triskantza izan zen. Eskerrak gaueko hamaikak jota gertatu



Cauterets-eko ur-jauziak.

zela. Ordubete lehenago laurogei pertsona inguru ibili ziren bertan zeregin desberdinetan.

Aldare nagusiko Karmengo Amaren irudia ere, hormari lotuta zegoelako, nonbait, airean geratu zen, kaletik ageri-agerian. Gaztedi dantza-taldekoek ere bertako gela batean zituzten jantzirik ederrenak bezetasunetik babesteko eta salbatu zirenak horman dingilizka agiri ziren lurretik hamar bat metrotara agerian haizearen plisti-plasta musika-doinuz zintzilik dantzan burrungo goizean.

Horrek arazo izugarria sortu zigun euskarako eskoletan. Gelarik gehienak hondatuta! Hala ere, solidaritate handia izan genuen auzoan. Ordura arte itxita izan genituen hainbat ate zabaldu zitzaizkigun bat-batean, etorkizunerako bide berriak eskainiz. Gertakari penagarri hura gaueskolak auzoan zehar zabaltzeko bide gertatu zen. Eskolak zenbait zentrotara eraman beharra izan genuen: alboan genuen Begoñako Ama-

*ren ikastetxera, Berriotxoako ikastetxeak Menendez Pelayo ka-
lean zituen geletara, Karmelo ikastolara, Briñas eskola publi-
kora, Boluetako eskoletara,...*

13.6.- “Akerra ikusi dugu...”

Zer gertatu zitzairen akerrarekin Aramaioko Etxaguengo udala ikastaroan agertzeko eskatu nionean honako hau erantzun zidan Patxik: *Euskarako ikastaroetan, eguraldi ona egiten ebanean, goizez etxe barruan nabiz inguruan ikasten gogor jardun ostean, basora joaten ginen arratsaldezk eskola lasaia-goak emoteko. Halako egun baten, ariketa batzuk egiten genbiltzala ahuntz talde handi bat, arran hotsean, ikusi genduan aurreko larrean, guregandik berrehun-hirurehun bat metro-tarra. Ahuntzak arkara izan eta ar-eske ebiltzan buztantxoak tente akerraren mutur aurrean, eta hau bere lanetan egundoko taketa zorrotz ederra agerian ebala, oraingoan honi hurrengoan hari atseginak emon nabiez. Taldeko hainbat, kaltetarrak izan eta zurtz eginda geratu ziren akerra halako lanetan gordin-gordinean behin eta berriro ikustean. Neu bere ustekabeen harrapatu ninduan, taldeko ikasle gehienak neskak ziran eta! Hasierako isilunearen ostean, barre ederrak egin genduzan eta gaiaren inguruan alkarrizketa luzea, euskaraz talde-izenak ‘ahuntzak’, ‘ardiak’, ‘behorrak’, ‘behiak’, ‘oilok’..., beti femeninoan, dirala eta holakoak, bat-batean behin betirako ikasiz. Eskola-ordu bizi-bizia gertatu zan! Utebako hori eskola trinkoek sortutako tentsioa lasaitzeko bere izan genduan. Handik aurrera, baserrian txalik edo jaiotzeko zanean, ikustera kortara eroateko eskatu eusteen, eta hala egiten neban, gau erdian izan arren. Horrela, euskara ikasteaz gainera, bide batez eta doan, beste zerbaite bere ikasten eben!*

14.- OMENALDIA

Patxi Uribarreni omenaldia egin zioten Santutxun, batez ere auzoan burututako lanagatik, baita unibertsitatean, Euskaltzain-

dian, Adorez taldean eta Karmel aldizkarian egindakoagatik ere, 1986an Martin Bazterra eta Joseba Arrietarekin batera, Mikeldi bat oparituz. Horrez gainera, 1. Korrikan lekukoa eramateko hautatu zuten.

Santutxuko gaueskolek auzoan euskarako eskolei hasiera eman genienoi egin zigun omenaldia. Eskerronez eskainitako ekintza bat izan zela aitortu behar dizut. Basarrateko zelaian izan zen, bertsolari eta guzti. Bertan antzinako gure kulturaren ezaugarri den “Mikeldi” irudiaren kopia bana oparitu ziguten Joseba Arrieta, Martin Bazterra eta niri. Jaialdi xumea eta, era berean, hunkigarria izan zen.

Aldizkarietako argitalpenak, gehienbat, Karmelen izan dira: aldizkarian ehun bat idazlan argitaratu ditut eta hemen bide batez aipatu izan ditugun hainbat alor jorratu ere bai. Karmeldarron aldizkari horretan, batez ere “Euskara gure bizkuntza” izenburupean argitaratutako hainbat lan erabili izaten genituen Irakasle Eskolan nahiz Etxaguengo ikastaro trinikoetan euskal gramatika eta lexikoa aztertzeko.

Aldizkari horretan askatasun osoz hainbat gogoeta plaza-ratu egin izan ditut, ahotsik ez dutenen ahots izaten saiatuz, jendeak gogoratu nahi izaten ez dituen gaiak aipatuz... Labur esanda, aldizkari honen azken berrogei urteetako ibilbidea oso hurretik bizi izan dut. Idazle izateaz gainera, aholkulari eta idazle kontseiluko kide ere izan naizelako.

Urteetako ibilbide luze horretan zehar, gaur egun euskal le-tretan oso ezagunak ditugun zenbait aurrez aurre ezagutzeko aukera izan dut. Karmel aldizkarian ez dugu idazleok inoiz ezer kobratu. Hala ere, ez dugu lanak eskuratzeko arazo larri-rik izaten. Gurekin lanean diharduten guztiek dakite euskara bultzatzeko asmo bakarrak eraginda dihardugula karmeldar-rok aldizkaria kaleratzen.

Bertoko idazle on artean barremanak estutzeko eta nola edo hala esker ona agertzeko Karmel aldizkariaren arduradunek

bazkari bat eskaini izaten die urtean zehar zerbait idatzi duten guztiei nahiz aurreko urtean aldizkariarekin lanean jardun dutenei. Horrek giro ederra sortzeaz batera, lanean jarraitzeko animoak ere ematen dizkiete bertaratutakoei.

Ondoren, oso gogoko izan dudan beste zerbait ere aipatu nahi nuke. Egin-eginean ere KORRIKA. Letra larriz jartzen dut benetan garrantzi handiko zerbait izan dugulako, bai adinekoen euskalduntzea bultzatzeko tresna modura bai euskaldunoi oraindik zer falta zaigun egiteko gogora ekarri izan digulako

Leben ekitaldia abian jarri zenean, Santutxuko gaueskolek nori zegokion lekukoa eramatea aztertu zuten. Bagenuen auzoan, orduan, “Retanaren biztegia” deitu zena egiten ari zen Lino Akesolo eta bera jo zen pertsona egokitizat. Eta hala egiteko asmotan ginen. Baina, Aita Lino gaixotu egin zen korrika etorri baino egun batzuk lebenago eta orduan neuri eskaini zidaten. Beraz, neuk eraman nuen, oso pozik gainera, lekukoa Iribar futbol jokalaria ospetsuaren eskutik jasota. Egia esan, kilometroa luze egin zitzaidan aldapan gora Txurdinagako goialderainokoa izan zen eta.

Hasiera batean, helbururik nagusienetarikotzat (erakunde publikoek ukatu egiten zioten AEK-ri dirulaguntza) euskarako eskolak aurrera ateratzeko baliabide ekonomikoak lortzeko bide modura abian jarri ondoren, gaur egun euskararen alde egiten den ekimenik garrantzitsuenetarikoa izatera etorri zaigu. Batetik, eskuak Euskal Herri osora zabalduz egiten delako eta, bestetik, ekintza horren inguruan hainbat kultur jarduera burutzen direlako.

KORRIKAK oztopo handiak (eta ez eguraldiaren aldekoak bakarrik), inoiz boikotak ere bai, izan ditu beraren ibilbidean zehar, baina, aurrera egiten jakin izan du AEK. Gaixorik izandako bi urtetan izan ezik KORRIKAREN amaiera-ekitaldi guztietan parte hartu izan dut. Aldundian ere neuk idatzi izan dut urteetan zehar bertako langileei korrikan parte hartzeko gonbitea, zenbait kasutan kilometroa egitera-

koan lekukoa eramenez. Apaizen koordinakundearen izenean ere eramán izan dut hiru aldiz lekukoa Martín Orbe adiskidearekin batera.

KORRIKAREN garrantzia handia da, nire ustetan, gaur egun ere, herririk herri ibiltzerakoan eta beraren aitzakiaz hainbeste kultur egintza eskaintzerakoan euskara jendearengana hurbiltzeko bide dugulako. Umeen artean ikastetxeek KORRIKA TXIKIAK antolatzek ere lagundu izan du euskararen zabalkunderako duen garrantzi hori areagotzen.



Patxi, KORRIKAKO lekukoa Iribarren eskutik jaso, eta abian jartzeko unean, J.R. Etxebarria eta Joseba Basterra alboan dituela

15.- EUSKALTZAIN OSO

Hegazkina aireportuan be - zain natural pausatu da Patxi aramaioarra Euskaltzaindian, euskaltzain oso izendatu dutenean.

Izendapenaz aitorpen interesgarri hau idatzi digu: *Euskaltzaindiak 1971ean Aramaion egin eban ekitaldirako lan bat eskatu eusten, eta hori zala eta Arabako Euskaltzaindikoko euskaltzainek urgazle izendatzeko eskatu eben; urte bereko irailean 24an egin ninduen urgazle. Euskaltzain oso, aurtengo (2008) irailaren 26an egindako bileran. Antza denez, iraila dut nire zortezko hilabetea, bertan diralako edo nire auzoko jagole dan Mikel Goiaingeruaren jaiak!!!*

Behin 1971-IX-24an urgazle izatera jaso zutenetik, ikerketa arloan eta jagote sailean behar handia egin izan du. Jardunaldietan ere, hainbestetan parte hartu du: Arrasaten, Elgoibarren, Bergaran, Donaixti-Ibarran, Markinan –atlas linguistikorako biltze batzordean-, Gasteizen dialektologian, Plentzian hitz elkar-ketaz, Deban onomastikaz, Bilbon Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarrean, eta abar. Albora utzi barik berak erredaktaturiko hilberri txostenak, Lino Akesolorena eta Pedro Pujanarena, kasurako.

Bestalde, hor aritu izan da Irakasleriaren batzordean, lexicologiakoan, onomastikakoan, LEFen... Horrez gainera, euskarako D eta B titulazioak emateko lantaldeetako kide izan da urteetan. Baita Euskaltzaindiaren izenean epaimahaiko ere itzultzaileen eta euskal teknikarien oposaketetan, Basaurin, Getxon, Bilbon, Gasteizen, Gipuzkoako Aldundian...

Euskaltzaindiaren zereginetan agertzen da, baita Ulibarriren omenaldian ere Okendon. Gertakari horren harira, *Karmel* 1975-4an, euskara eskoletan sartzea eta herritarrei irakurtzen eta idazten irakasteko ahalegina azpimarratzen ditu.

Karmel 1990-2an, “Administrazioa eta euskara” landurik, orain Euskaltzaindian kide dituenen hitzak batzen ditu, batez ere, Andoni Sagarnarenak, Mikel Zalbiderenak. Beste alde batetik, defendatu egiten du Euskaltzaindia: “*Azkenik, arazo honetan azken hitza Euskaltzaindiak bakarrik izan behar duela azpimarratu nahi nuke*”.

Aspaldian, euskaltzain oso ez zenean Euskaltzaindiari eskatu ziona betetzeko aukera du orain euskaltzain oso bilakatu denean. Honela mintzatzen zitzaion: “*Leioako Kongresua bukatu ondoren, Euskaltzaindiak hizkuntzari zuzen-zuzenean dagozkion erabakiak hartzen diharduen artean, ez legoke bat ere gaizki, Jagon Sailak edo beste batzorderen batek, irekitasun handiz, euskararen alde diharduten taldeekin harreman estuagoak burutzen hastea, euskararen geroa ez baita hizkuntzaren egokitze prozesu hutsetan jokatzeko, herriaren gogoetan*

eta herri horretan sortutako era ezberdinetako mugimenduetan baizik. Horrelako zerbait agertzen digute bai udal euskaldunek nabiz zenbait udaletan martxan jarritako euskararen aldeko ekimenek ere”.

Euskara batuaren aldeko jarrera argia ere aspaldi erakutsi zuen: *“Dena den, ez deritzot euskararen gaixotasun nagusien iturburu euskara batua izan denik, gutxiagorik ere. Gure etsairik handiena, lehen eta orain, inguruko erdarak ditugu”.* Karmel 2001-4an.

Patzik euskalkien aurrean duen jarrera ederto baten ikusten da bizkaiera literarioa darabilen *Karmeleko* artikuluetan, baita Aramaioko toponimian eta *Adorez* taldeko hiztegieta sartu izan dituen milaka euskalkietako hitzetan ere.

Nik baieztza dezakedan neurrian esango dut, Patxi Uribarreni euskal munduak ez diola erretreta hartzeko betarik uzten, ezen, irakurlea ohartuko denez, Imanol Berriatuaren gaineko liburuan *–Imanol Berriatuaren bizitza euskalduntzearen eztanda* itaundu genionean Diputazioko itzultzaile profesional izateari uztean zer asmo zeukan, eginkizun zeuzkan ikerlanen artean agertzen ez zen berria agertu baitzaio, alegia, Euskaltzain oso izatea.

Hara zer erantzun zigun 2006an: *Aldundiko lanari dagokionez, bizitzako legea denez, seguruenik datorren urtean (2007) utziko dut itzultzaile-lana. Urteak berez dakarte zabartzea, eta bala gertatu zait niri ere. Hortik aurrera zer egingo du-dan? Seguruenik betiko bidetik lanean jarraitu: Karmel aldizkarirako idazlanak patxadatsu egin; Adorez Hiztegiak sorta berriztatzeko bideetan jende berriari laguntza eskaini; gelako zokoan noiz burutuko zain utzita ditudan itzulpen-lan batzuk burutu, eta neure egunerako lanak abalik eta ondoen egiten jarraitu, osasunak ezinaren langa jartzen ez didan bitartean. Guri ere etorriko zaigu, jakina, deitu gabe ere, ezina!*

Ez dut uste proiektu berrietarako garaian garenik. Lehendik ere abian jarritakoak ongi finkatu beharra dugu. Hala ere,

gerta daiteke, -nork esan ezezkorik?- ezer berririk egin beharra sortzea. Orduan abal dudan eran heldu diot lanari. Orain arte ere, talde lanean ibiltzen obitua naiz eta hala egingo dudala aurrerantzean ere uste dut.

Sarritan, bizitzan atzera begiratuta, subiltzailearen lana egiten jardun izan dudala iruditzen zait. Horrela, euskarako eskolak abian jarri behar zirela? Bada, abian jarri. Horretarako biderik egokiena eta zuzenena udako ikastaro trinkoak zirela? Bada, bide berri horri ekin. Euskarako irakasle titulua bultzatu behar zela? Bada, Euskaltzaindiko titulaziorako batzordean jardun eta prestakuntzarako ikastaro bereziak bultzatu. Irakasle-Eskolan euskarari bideak egin eta plangintza ofizialak abian jartzeko premia zegoela? Bada, bertara joan eta lanean hasi. Bizkaiko Aldundian itzulpen-alorra eta euskara bideratu behar zirela? Lanpostua lortzeko beste langileek bezala oposaketak egin eta lan horretan jardun. Euskara beharrian berrietara egokitu behar zela lexikografia alorrean? Bada, Bostak bat taldea sortu eta ADOREZ hiztegiak sorta osotzen biztegitintzan buru-belarri abalegindu. AEKk laguntza behar zuela? Bada, hark antolatzen zituen ekintzak (Korrika eta abar) bultzatzen laguntza eskaini. Unibertsitateko irakasle kaleratuek babesa eta animoak behar dituztela? Bada, horretarako antolatutako batzordean lanean eskuz esku taldean jardun. Presoen familikoek laguntza behar dutela? Bada, ematen saiatu.

Ikusten duzunez, larrialdien edo premien arabera, hutsuneak betetzen saiatu naiz. Eta guzti hori beste zenbait euskaltzale finekin batera.

Azken burura iritsirik, irakurle, abagune egokia dateke, Patxi Uribarren Leturiaga adiskideari, euskaltzain oso eta fraide beteari, aitortzeko Juan Mari Lekuonak esan ohi zidana: *Guk Juan Luis geure aldikoekin izan behar dugu solidario*. Zu hala izan zara gaur artekoan, bai Karmelen, bai Adorez taldean, bai itzulpengintzan, baita Santutxuko auzoan eta kristau komunita-

tean. Zortea sortu eta suertatu zaizu taldeko sinergiak kudeatzen zeure bizitzan. Holaxe gerta bedi geroan ere, zeure eta geure mesedetan.

16.- FINIS CORONAT OPUS

Indiarren erara, atzea ortzian eta belarria belarretan jarri beharrik ez da Patxiren oinatzei jarraitzeko. Hala ere, odol biziko behor arabarra denez, lauhazkan eman du bizimodua eta guk haren ibilbidearen albistea irakurleari helarazteko, ilargiak eta eguzkiak zenbatu behar izan ditugu harik eta amaierako finis coronat opus hau aldarrikaturik asaskatuta geratu garen arte.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

PATXI URIBARREN LETURIAGAREN CURRICULUMA

Jaioterria: ETXAGUEN – ARAMAIO (ARABA)

Jaioteguna: 1942-XII-31

1. Ikasketa-titulazioak:

- Teologia-lizentziatura: tesi txikia euskaraz
- Linguistika-lizentziatura: tesi txikia euskaraz (Aramaioko toponimiari buruz)
- Euskaltzaindiko “D” eta “B” titulazioak (1972-III-9)
- Oposaketa publiko bidezko itzultzaile ofiziala Bizkaiko Aldundian (1983)

2. Euskararen aldeko jarduerak: (1966-1980)

1. Gogoz aldizkaria abian jarri eta zuzentzea (1965-1968).
2. Ipuinak euskaratzen teologia-ikasketa garaian (1966-1967).

3. Karmeloko (Bilbo) euskal mezarako (1964-1965) materiala prestatzea eta meza horren ardura gaur arte
4. Alfabetatze-euskalduntze lanak: Santutxuko gaueskolak sortu ondoren (1966), lehen urtetik irakasle maila guztietan eta bertako arduradun-koordinatzailea lanetan aritu zen 12 urtetan, honakoak burutzen:
 - Jendea alfabetatzen eta euskalduntzen.
 - Materiala prestatzen, eta *Euskalduntzen* metodo berria bultzatzen.
 - Udako lehen ikastaro trinkoak antolatu eta beraietan euskara irakasten.
 - Irakasle berriak prestatzen eta zenbait tokitan euskal taldeak sortzea bultzatzen.
 - Ikastolara ez zihoazen haurrentzat euskalduntzeko bideak jartzea bultzatzen.
 - Euskara ikastetxeetara eramateko lanetan.
 - Haurren gurasoentzat aparteko eskolak abian jartzen.

3. Deustuko Irakasle Eskolan euskara abian jartzen: (1976-1983):

- Euskararen irakaskuntza antolatzen 1976-1977 ikasturtean.
- Euskara ikastorduetan jartzeko planifikazioa egiten (1977-1978).
- Euskal filologia eta euskal adarrak jartzeko bideak prestatzen (1978-1979).
- Hezkuntza Zientzien Institutuaren (HEZI) laguntzaz goi mailetako ikasleentzat udako ikastaro trinkoak prestatzen, eta beraietan irakasle lanetan.
- Ikastolako irakasle titulu-gabeentzat karrera egiteko bideak bultzatzen.
- Irakatsi zituen gaiak: *Alfabetatzen I/II* (idazkera eta abar), *Dialektologia* eta *Morfosintaxia*. Ikastaro trinkoetan: *bizkuntza ariketak* ere bai.

4.- Itzultze-lanetan Bizkaiko Foru Aldundian: 1983-2007: itzultzaileari berezkoak zaizkion eguneroko lanez gainera, honakoak egin zituen:

- Euskara erakundean ezartzeko plana prestatu zuen (1983-1984).

- Itzultzaile-plana egin eta oposaketetarako programa gertatu zuen.
- Urteetan zehar toponimia-alorreko arduradun lanetan jardun izan du, Eusko Jaurlaritzako Toponimia Batzordean Aldundiaren ordezkari izanik.
- Zenbait oposaketan Aldundiaren ordezkari izan da.
- Nekazaritzako hiztegia egin zenean teknikarien koordinatzaile izan zen
- Aldundian argitaratutako zenbait libururen zuzentzailea izan da.
- Langileentzat hainbat txosten prestatu izan ditu, esaterako, *Korrika* egintzaren aldekoak.

5.- Zenbait erakundetako kide edo aholkulari izan da:

- Arabako Aldundiko Kultura Batzordeko kide, 1971eko udazkenean izendatuta.
- 'KLASIKOAK' liburu-sortarako itzuli beharreko liburuak aukeratzeko sortutako batzordeko kide.
- Euskararen 'KONTSEILUA' erakundearen sortze-lanetan eta bertako kide hasieratik (1998) *KARMEL* aldizkariaren izenean.
- EIE / Euskal Idazleen Elkarteko kide da (1982tik).
- EIZIE / Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteko kidea da (1987tik).
- 'Bostak Bat' kultur elkarteko sortzailetariko kide eta ikertzaile da (1981etik)

6.- Euskaltzaindiarekin izandako harremanak labur bilduta: Euskaltzaindiko urgazle izendatua izan zenetik (1971-IX-24):

- Aktetan ageri denez, hainbat bilera arruntetan parte hartu du batez ere Bilbon eta Araban egindakoetan.
- Aktetan ageri denez, hainbat jardunalditan ere parte hartu izan du: Elgoibarren (1973-I-28); Arrasaten (1973-VI-21); Bergaran (1978-IX-7); Arrasaten (1979-XII-20); Donaitxi-Ibarren (1982-IV-18); Markinan (1983-IX-25); Gasteizen (1985-I-25); Plentzian (1987-I-31); Deban ; Oñatiko kongresuan (1993-X-1); Leioan (1994-X-3/7); Bilbon (2001-IX-17/19an)...
- Hainbat euskaltzainen sarrera-ekitaldietan, hiletetan, hilberri-txostenak (Lino Akesolorena eta Pedro Pujanarena bereak dira) irakurri izan direnetan egon.

- Zenbait batzordetan parte hartu izan du, batzordekide lanetan edota aholkulari lanetan: *Irakasleria*, *Lexikologia*, *Onomastika*, *LEF*...
- Euskarako titulazioak emateko eratutako lantaldeko kide izan zen hainbat urtetan.
- Euskaltzaindiaren izenean epaimahaiko ere izan da behin baino gehiagotan, itzultzaile eta euskal teknikarien oposaketetan: Basaurin, Getxon, Bilbon, Gasteizen, Galdakaon, Gipuzkoako Aldundian...
- Euskaltzaindiak hizkuntzen irakaskuntza eta oinarritzko euskara aztertzeko Imanol Berriatua gidari zela Israelera egindako bidaian ere parte hartu zuen.

7.- Ikerlanak (garrantzitsuenak):

- Elizkizunetarako irakurgai-liburuen ikerketa (1984): hiru bertsoien konparazioa.
- 'Bostak bat' taldeko kideekin batera, zenbait ikerketa puntual talde-lanean (1984-1986 eta 1993) hiztegiak prestatzeko.
- Lino Akesoloren lexikoaren ikerketa (1995).
- Azkueren hiztegiko hitz komunak bilketa eta azterketa (2005), Txomin Solabarrieta lankidearekin batera.
- *Oinarritzko Hizkuntza baliabideen azterketa* (2006) zuzendu zuen, 38 oinarritzko euskal iturri aztertuz.
- *Euskalkiei buruzko ikerlanen emaitzak gizarteratzea* (2006) ikerketa zuzendu zuen, Bizkaiko 13 herritako lexikoa konparatuz.
- *BOSTAK BAT* taldearen datu-basea, Euskaltzaindiko Euskara Batuko lantaldeak proposatutako sarrerekin erkatu eta horien arabera jartzeko ikerlana egin du (2007-2008), 3000 HIZTEGIA horren arabera zuzendu eta egokitzea bideratuz.
- *Euskal Aditza – Trinkoa eta laguntzailea- (Batua – Bizkaiera – Zuberera)* (2005-2006). Aditza (adibide eta guzti) hiztegi eran kontsultatzeko bideak ematen dituen lanaren prestatzailea, zuzentzailea eta, bertan jasotzen diren eskemen egilea izan da.

8. Idazlanak (labur bilduta):

- Euskaltzaindiaren EUSKARA aldizkarian 5 lan eta IKER sortan beste 3 lan argitaratu ditu

- ‘BOSTAK BAT’ Kultur Taldean argitalpenetan parte hartu du:
 - 1983: *Sinonimoen Hiztegia* (I). Adorez 1. (8.964 sarrera).
 - 1986: *Euskararako Hiztegia*. Adorez 2. (mota honetako lehena).
 - 1988: *Sinonimoen Hiztegia* (II). *Antonimoduna*, Adorez 3. (19.783 sarrera).
 - 1990: *Euskararako Hiztegia*. *Oinarrizkoa*, Adorez 4.
 - 1991: *Eskola Hiztegia*. *Irudiduna* (I). Adorez 5 (haurrentzat prestatua)
 - 1993: *Europa Hiztegia*. *Eskola berrirakoa*. Adorez 6
 - 1996: *Diccionario 3000 Hiztegia* (I), Adorez 7 (elebiduna)
 - 1999: *Sinonimoen Hiztegia* (III), *Antonimoduna*, Adorez 8. (36.703 sarrera)
 - 2001: *Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia*. Adorez 9 (elebiduna)
 - 2002: *Diccionario 3000 Hiztegia* (II), Adorez 7 (elebiduna; berriztatua)
 - 2005: *Eskola Hiztegia*. *Irudiduna* (II). Adorez 5 (zeharo berriztatua)
 - 2006: *Euskal Aditza*. Adorez 10 (Patxi Uribarrenek hiztegi-eran antolatua)
- Inoren liburutan argitaratutako idazlanak:
 - JUAN SAN MARTIN/SERAFIN BASAURI: *Hegatsaz*: Kuliska Sorta (1971); Patxi Uribarren: *gazteria bultzaka*, 293-300 orr.
 - Patxi Uribarren: *Aita Santi Onaindia: gizona eta obra*; JAKIN 53 zk. (1989) 141-164 orr.
 - JUAN LUIS GOIKOETXEA – BENGONÑA BILBAO: *Imanol Berriaturaren bizitza euskalduntzearen ezteandan 1970 – 1980*; Mendebalde Kultura Alkartea – Ateka Aztergaiak IV; Patxi Uribarren: *Euskararen eta euskaltzaleen historia bizi bezain eza-guna* (elkarrizketa), 57-92 orr.;
 - KLASIKOAK -1912: Miguel de Unamuno, *del sentimiento trágico de la vida*; euskaratzailea: Xabier Kintana Urtiaga: *bizitzaren sendimendu tragikoa*, Bilbo (1994); berrikuslea: Frantzisko Uribarren Leturiaga.
 - Komunikabideetan zenbait lan txiki: Aramaioko TXIRRITOLA egunkarian; (bakarrean zein lankidetzan) *Egunkaria* eta *Berria* egunkarietan, *Mabatsondo* aldizkarian

- GOGOZ (1965-1968): karmeldar ikasleen aldizkaria zuzentzeaz gainera, 25 lan argitaratu zituen (100 bat orrialde)
- *KARMEL* (Bibliografia osoa: 1931-2007; Karmel 2008-3, 263. zenb.)
 1. Iritzi, ikerketa, dibulgazio lanak: guztira 112 idazlan (1.100 orrialde baino gehiago)
 2. Itzultze-euskaratze-egokitze lanak: 10 idazlan (100 orrialde baino gehiago)
 3. Lankidetzan eginiko lanak: 15 liburutan (279 orrialde baino gehiago)
 4. KARMEL sortako lanak:
 - URKIZA TXAKARTEGI, Julen, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991) Historia eta agiriak*. (1992) 497 orr. Euskaratzailea: Patxi Uribarren.
 - UNZUETA, ANTONIO, Fr. Jose Jesus-Mariarena (Jose Arakistin, 1700-1764) IDAZLANAK, Karmel Sorta, 10 (1997) 231-333; euskaratzailea: Patxi Uribarren.
 - TERESA LISIEUXkoa, *Idazlan guztiak*, Karmel Sorta, 8 (1996); Patxi Uribarrenek itzuliak: *Azken elkarriketak* (879-1067 orr.); *Aurkezpena eta Hitzaurrea* ere, 11-18 orr.